

**2022KO OTSAILAREN 23KO KONTROLERAKO
BATZAR NAGUSIAREN BATZAR-EGUNKARIA
(ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE
CONTROL DE FECHA 23 DE FEBRERO DE 2022
(TRADUCCIÓN)**

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	5
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “AP-68 autobidearen erabiltzaileek oraindino laguntza barik jarraitzea.”	5
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	5
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Pradales Gil jaunak hartu dau berbea.....	8
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	10
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Pradales Gil jaunak hartu dau berbea.....	11
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Bizkaiko Foru Sektore Publikoan berdintasun-politiken zeharkakotasuna bermatzea.”	12
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	13
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Laespada Martínez andreak hartu dau berbea	16
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	19
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Laespada Martínez andreak hartu dau berbea	21
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “Bizkaia Prest dalakoak kudeatutako mendiko erreskate edo bilaketen ondoriozko larrialdietako esku-hartzeetako hutsuneak.” ...	21
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	22
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	24
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	27
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	29

- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “2023ko Frantziako Tourraren irteera.”	30
- EH Bildu taldeko Isuskiza Arana batzarkide jaunak hartu dau berbea	30
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	32
- EH Bildu taldeko Isuskiza Arana batzarkide jaunak hartu dau berbea	34
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	36
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: “Zaintzaileek atsedean hartzeko daben eskubidea bermatzea.”	38
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	38
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	41
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	43
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	44
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “Egoitza soziala aldatzearen ondorioz gure lurraldeak enpresak galtzea.”	45
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	46
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	46
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Andrade Aurrecoechea batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	47
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	48
- IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau: “2022ko zerga arloko neurriak.”	48
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	49
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea	49
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea	50

- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea	52
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau: “32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoa.”	52
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	53
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	53
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	54
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	55
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bederatzigarren puntua irakurri dau: “Egoitza-zentroetako gaueko arretearen gaur eguneko egoera.”	55
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	56
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	56
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	57
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	58
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hamargarren puntua irakurri dau: “Instrumentalizazioa gurasoen arteko gatazketan” izeneko BALORaren itemak Haur Zerbitzuak identifikatutako babesgabetasun egoeretan izan duen eragina.”	58
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	59
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	59
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	60
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	61
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hamaikagarren puntua irakurri dau: “Bizkaibizi proiektua.”	61
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	62
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea	62

- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea 63
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea 64
- Batzarra amaitu da..... 65

2022ko otsailaren 23ko batzarra
goizeko 09:30ean hasi da.

Se inicia la sesión del 23 de
febrero de 2022 a las 09:30 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Sí. Buenos días, señores y señoras. Señor Diputado General, señoras y señores diputados, junteros/as, y a todas las personas que seguirán a través de streaming esta Sesión Plenaria, buenos días; y una vez más, quiero agradecerles por estar también hoy con nosotros/as. Para dar inicio a la Sesión Plenaria de Control, señor Secretario, ¿cómo dice el primer punto?

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI**
jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0000246](#))

Autor: Andrade Aurrecoechea, Eduardo
(GM/TB-PPB)

Asunto: Mantenimiento de la ausencia de ayudas a los usuarios de la AP-68.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0000246](#))

Expediente: ([11/B/18/0003162](#))

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0000246SE](#))

Egilea: Andrade Aurrecoechea, Eduardo
(GM/TB-PPB)

Gaia: AP-68 autobidearen erabiltzaileek oraindino laguntza barik jarraitzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000246SE](#))
Espedientea: ([11/B/18/0003162](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Sí. Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Egun on guztioi.

Benetan dinotsuet sentiduten dodala gai hau barriro eztabaidara ekarri behar izatea. Batez be bizkaitarrakaitik sentiduten dot, eta sentiduten dot beste behin be Foru Gobernu ez dalako egon eta ez dagoalako egoereak eskatzen dauen mailan. Izan be, gobernu honen politikarik okerrenaren laginik onenaren aurrean gagoz, ez dau-eta ezer konpontzen eta justifikazino ulertezinez beteta dagoalako. Konpromisoak berbaz baino ez dira hartzen. Izan be, gure ustez, Aldundiaren bidesarien politikea bizkaitarrentzat gehienbat hondamendia da, eta huskeria endemas AP-68ari jagokonez.

Gogoratu daigun apirilaren 30eko 71/2019 Dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzek bere gain hartu ebala AP-68aren titulartasunaren eskualdatzea, eta 2019ko maiatzaren 6an indarrean sartu zala. Zazpi hilebete geroago, Bizkaiko Lurralde Historikoari eskualdatu jakon AP-68 autobidearen zati baten titulartasuna, zati horren ibilbidea Bizkaiko Lurralde Historikotik igaroten da-eta. Eskualdaketea 2020ko urtarrilaren 1ean gauzatu zan.

Bi urte baino gehiago igaro dira eskualdatu zanetik, eta AP-68 autobideko erabiltzaileek ez dabe inongo laguntzarik jaso bidesaria ordaintzeko; Diputadu Nagusiaren konpromisotik 4 urte baino gehiago, eztabaida hori Batzar Nagusietan planteau zanetik bi urte igaro ondoren, eta urtebete gure taldeak itaun bera egin ebanetik, hain zuzen be.

Eta bardin jarraitzen dau danak. Bizkaitarrentzat AP-68ko bidesarien inguruan Foru Aldundiak hartu dauen politikeak bardin jarraitzen dau, hau da, ez dago inongo politikarik bidesarietarako.

Bizkaiko erabiltzaileek bidesariaren %100 ordaintzen jarraitzen dabe. Eta okerrena da, itxura guztien arabera, danak bardin jarraituko dauela, ez da-eta ezer aldatu, ez konponbidea, ez justifikazinoa. Izan be, justifikazinoak hondino be sendotasun barik jarraitzen dau eta Pradales diputaduak 2022ko zezeilaren 19an erretorika beragaz aurreratu dau. Bizkaitarren egoera jasanezina ikusita, mantra bera. Mantra eta komodina. Horren haritik, beti azalpen nazionalistak errepitiduten dauz: errua beste bati leporatzea. Hasieran, Gobernu Zentrala zan, ez ebalako transferentzia egiten. Eta orain Foru Aldundia da erruduna, AP-68rako bidesari soziala daukana, edo emokidaduna, ez zarielako beragaz akordio batera heltzen. Izan be, Azpiegituretako diputaduak behin eta berrero aitatu dau Arabako Aldundiagaz eta emokidadunagaz akordio politikoaren oztopoa gaintzeko hainbat kudeaketa egin behar dirala, batzorde teknikoa dala, negoziazioetan aurrera goazala, negoziazioak ez doazala txarto, baina hondino nahikoa lan dagoala egiteko... Beti gauza bera.

Gure ustez, eskualdatzea lortu ondoren, beste behin be atxakien eta justifikazinoen buklean ezkutetan jarraitzen dauen Aldundi bat sufriduten daben bizkaitarrei burla egitea da. Izan be, beste erkidego batzuetan eskualdatzea edo egundo heltzen ez diran ustezko hitzarmenak ez dira inoiz eragozpen izan AP-68 autobidearen ibilbidean doakotasunak eta hobariak jarteko, ez Arabako Aldundiarentzat, ezta Aldundi honentzat be, zuon obratzarrak egiteko benetan interesau jatzuenean Estaduko Administrazino Orokorragaz eta Avasa Soziedade Emokidadunagaz akordioak sinatzea lortu dozuelako, AP-68 autobidearen eta metropolialdeko hegoaldeko saihebiderearen arteko lotune bat eregiteko. Baina hori bai, ezin izan dozue eta ezin dozue bizkaitarrentzat AP-68ko bidesarietan hobaririk adostu.

Inoiz heltzen ez dan hitzarmenaren atzean ezkutetan zarielako. Errioxarrek AP-68ko bidesaria doakoa izateko lehenengo hitzarmena 1999ko apirilaren 28an sinatu eben, eta alde desbardinatiko gobernuakaz akordioak kateatzen joan dira bidezati eta beherapen batzuen doakotasunari buruz, bai Alderdi Popularraren gobernuakaz, bai Alderdi Sozialistaren gobernuakaz, eta gaur arte. Aragoikoek bardin, eta urte batzuetarik hona doakotasunak eta hobariak daukiez AP-68ko bidesarian.

Ez Errioxak ez Aragoik ez dabe AP-68aren titulartasuna eskualdatuta, guk daukagun lez. Esate baterako, Errioxak AP-68an, hain zuzen be, doakotasuna dauka Alfaro eta Haroko geltokien artean ibilgailu arinentzat 24 orduko epean egindako joan-etorrietako ibilbideetan; doakotasuna Cenicero, Navarrete, Logroño eta Argoncillo geltokien artean egindako ibilbideetan, baldintza bako ibilgailu guztientzat, beti be aurreko ataleko neurrien onuradun ez badira; %50eko beherapena indarrean dagoan tarifearen prezioan Errioxako geltokien barruan ibilgailu arinentzat zein astunentzat; %75eko

beherapena lau ardatzen garraio astunarentzat, N-232 errepidetik Errioxatik igarotean nahitaez desbideratu behar dalako...

Azken baten, zentzunbakokeria da. Bizkaiko erabiltzaile bat doan ibili leiteke Errioxatik igaroten dan eta eskualdatu barik dagoan AP-68ko bide-zati batetik. Baina Bizkaiko bide-zatitik, ostera, tarifearen %100 ordaindu beharko dau.

Baina hobariak ez dira akordioetatik bakarrik sortzen; izan be, azken 20 urte honeetan akordio bat bilatzen dabilela aitatu dauen letania aspergarria albo baten itxita, Bizkaiko Foru Aldundiak erakutsi dauena da gai honetan ez daukala inongo gaitasunik ezta borondate politikorik be. Borondate politiko falta hori Diputaduak berak erakusten deusku, ezta?, eta ez Arabako Aldundiak lez. Izan be, lehen esan dodan moduan, Arabako Foru Aldundiak 2001etik hona arabarrek AP-68 autobidean bidesari sozial bat euki dagiela lortu dauelako, Arabako Foru Aldundiaren urtarrilaren 16ko Diputaduen Kontseiluaren Foru Dekretu sinple eta aldebakarreko baten bidez. Akordio bat bere buruagaz, Foru Gobernuagaz, ez inongo emokidadunegaz, ez beste inogaz. Bere buruagaz akordio bat, Foru Gobernuaren eskumen eskusiboko aldebakarreko egintza baten, gai tekniko gatxei buruzko akordiorik edo planteamentu juridikorik egin behar barik. Hori egiteko nahikoa da erabagi eta borondate politikoa. Eta esan dodan lez, titulartasun eta kudeaketa barik. Erabagitasunez eta borondate politikoagaz baino ez, eta, gainera, kasu honetan, arabarra irme gorde da azken 20 urteotan.

Arabako Foru Aldundiaren bidesari soziala, hontsu handitu dana, beste batzuetan esan deusuedan moduan, orain dala 5 hilebete. Izan be, 2021eko irailaren 1etik aurrera, Arabako ohiko erabiltzaileek hobaria daukie Laudio eta Bizkaia eta Bilbo artean be.

Bai, Diputadu jauna, orain dala 5 hilebete hobaria Laudioraino luzatu dau, inongo emokidadunegaz ezelango akordio barik. Akordio barik. Aldundiaren aldebakarreko akordioa baizen erraza. Eta hemen gagoz, dinodan lez, gure taldeak etxe honetan itaun bera aurkeztu ebanetik urtebetera, ezer aurreratu barik.

2021eko martian, itaun bera egin zanean, Foru Aldundi honek esan ebanean behar zan guztia egiten ari zala bizkaitarrek AP-68ko bidesarrietan beherapenak lortu ahal izateko, eta errepede hori lurraldeko tarifen sistema integralean sartzea espero ebala.

Urtebete igaro da eta ikusten dot ez dozuela ezer egin. Bien bitartean, hontsu prentsan argitaratuta ikusi dogun moduan, 14.798 bizkaitar joan ohi dira egunero Gasteizera, eta %77 inguru ibilgailu pribaduetan. Euskal Autonomia Erkidegoko mobikortasunari buruzko azterlanaren arabera, 64 kilometro dira, horreetatik 37 kilometro AP-68 autobidean. Eta arabarrek, batez beste, urtean 1.012 euro ordaintzen dabezan bitartean, hilean 20 egun 11 hilebetetan, Bizkaitarrok 2.530 euro ordaindu behar doguz, arabarrek baino 1.518 euro gehiago ordaindu behar doguz bide berean hobaririk ez daukagulako.

Joan dan urtarrilean, Gasteizera beharrera 20 lanegunetan joan diran bizkaitarrek 230 euro gehiago ordaindu dabez, arabarrek baino %78 gehiago. Non geratu dira Bizkaiko Ahaldu Nagusiaren adierazpenak, 2017an AP-68 autobidea eskualdatzea eskatzen ebanean dirulaguntzea ezarteko, eta titulartasuna eskualdatuta AP-68 autobide horretan lurraldetik igaroten diran gainerako autobideetan ezarten ari garan gastu-mugearen formula bera zabalduko geunkela ziurtatzen ebanean? Non geratu da 2017ko zezeilaren 15eko Osoko Batzarraren konpromisoa, honakoa esaten ebana, talde sozialisten eta euskal taldeen zuzenketearen bidez?: "Bizkaiko Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatzen deusie AP-68 autobidearen eskumena bere gain hartzen dauenean, Bizkaitik igaroten dan zatian,

foru-titulartasuneko bidesari pean dagozan bide-azpiegituri ezarten jaken dirulaguntzen erregimen bera ezarri dagiala: AP-8 autobidea, metropoliko urbanizazio handiak, Artxandako tunelak...”. Non geratu da 2017ko maiatzaren 24ko Osoko Batzarraren proposamena, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeak be egin ebena, zuzenketa bat aurkeztuta, berbaz berba honakoa inoana?: “Bizkaiko Batzar Nagusiek AP-68aren titulartasuna euskal erakundeei eskualdatzeko eskaera berretsi dabe, ezarri beharreko bidesarien eta hobarien kudeaketa eta politika errazteko”. Azpiegitura horren eskualdatzea onartu ondoren, 2020ko zezeilaren 19ko Osoko Batzarrera heldu ginan. Bertan, AP-68ko bidesariari buruzko ekimen bana izapidetu ziran, eta gobernuko taldeek batzorde teknikoaren akordio baterako epea amaitu zala adierazi eben. Urte bereko maiatzean, 2020an. Bi urte igaro dira eta ez dogu ezer egin.

Non geratu dira adierazpen eta promesa horreek guztiak? Ez-beteteen zerrenda luzean desegin dira, betiko lez.

Horregaitik guztiagaitik gure Ahaldun jaunari galdetzen deusagu Bizkaiko Foru Aldundiak berehalako ze neurri hartuko dauzan Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diran pertsonak, AP-68 autobidearen erabiltzaileek, azpiegitura horren bidesarietarako laguntza barik jarraitzea eragiten dauen politika zuzentzeko.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. Y en nombre de la Diputación, el representante de la Diputación, señor Pradales Gil, tiene usted la palabra.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Señora Presidenta, Diputado General, buenos días a todos/as.

Hoy hablaremos de nuevo de la AP-68. Se trata de un tema que se repite una y otra vez en esta Cámara, tal y como se ha dicho, y se ha tratado en numerosas ocasiones a través de interpelaciones, mociones, Propuestas No de Norma y preguntas orales. En relación a este tema, la Diputación Foral de Bizkaia está respetando rigurosamente la hoja de ruta acordada en la Sesión Plenaria del 19 de febrero de 2020, tras adoptar una Propuesta No de Norma, y que regula lo siguiente:

“Integrar en el sistema de límite de gasto todas las infraestructuras viarias sometidas a peaje de titularidad y gestión de la Diputación Foral”. Uno.

Dos: “En el caso de la AP-68, una vez asumida la gestión directa y una vez finalizados los trabajos de la comisión técnica prevista en el decreto de transferencia, analizar el establecimiento de subvenciones junto con la empresa concesionaria, sin descartar el sistema de límite de gasto”. Dos.

Y tres: “En dicho estudio, entre otras cuestiones, se recogerá el procedimiento informativo relativo a los viajes realizados, los mecanismos necesarios para evitar el fraude y, en su caso, las inversiones que deben realizarse para integrar al sistema acordado entre los partidos”.

Tres temas, tres grandes líneas. Eso era, y es, literalmente, lo que aprobamos por mayoría absoluta en estas Juntas Generales. Eso sí, con el voto en contra del Partido Popular.

Y esa es la hoja de ruta, punto por punto, que está siguiendo la Diputación Foral de Bizkaia.

Zentzunbakokeria, burlea, gaitasunik eza... Ez dakit zenbat kalifikatzaile erabili dozuzan. Ni neu errespetuaren kalifikatzaileagaz hasiko naz. Ganbera honi errespetua eta Bizkaiko Foru Aldunditik jarraitzen ari garan ibilbide-orriari errespetua.

Autobidearen eskualdatzean batzorde tekniko bat sortzea berbatu zan, Arauz Besteko Proposamenean bertan jasoten dan moduan. Gai garrantzitsua: emokidea indarrean dagoan bitartean administrazioen arteko funtzionamentu-araubidea arautu behar eban batzorde teknikoa, emokidadun bategaz emokidea dagoala gogorarazoten deusudalako. Covid-19aren pandemiaren eta Espainiako Garraio Ministerioan orain dala ez horrenbeste gertatu ziran aldaketen ondorioz, batzordea hasieran aurreikusitakoa baino gehiago atzeratu da bere lanean. Edozelan be, gaur jakinarazo gura deusuet Transferentzien Dekretuan aurreikusitako batzorde teknikoak amaitu dauzala bere lanak. Igazko amaieran egindako azken batzarrean, alde guztiek adostu genduan administrazioen arteko hitzarmena izango dan testua Euskal Autonomia Erkidegotik igaroten dan AP-68 autobidearen zatitari buruzko eskumenak arautzeko eta koordinetako. Garraio Ministerioaren, Arabako eta Bizkaiko foru-aldundien arteko hitzarmena, eta hitzarmen horren helburua da Ministerioak eta foru-aldundiek autobideari jagokonez dabezan eskumenak arautzea eta koordinetea, bakotxaren titulartasunaren arabera, bai eta euskal emokidadunagaz kontratuzko hartu-emonak izatea be, bera da-eta autobidea eregiteko, kontserbetako eta ustiatzeko emokidearen esleipenduna 2026ko zemendira arte.

Hitzarmen horretan honakoak arautzen doguz: Ministerioak, administrazio emoilea dan aldetik, aldian-aldian emon behar dauzan informazio-betebeharrak; kontabilidade analitiko bat ezartea, administrazioen titulartasuneko zati bakotxa ezarri dagian; jabari publikoaren eta babes-eragineko eremuen arloko espedienteak izapidetzea; ikuskapen- eta kontrol-lanak; kontuen zentsurea; eta hiru erakunde publikoen artean koordinau beharreko gainerako gai guztiak.

Izan be, adostutako testuan, administrazio bakotxak azpiegiturearen titular lez jagokozan ahalmenak erabili behar dauz, baita emokida-kontratuaren arabera bere lurraldetik igaroten dan azpiegiturearen zatian eragiten deusien eskumenak be, gure kasuan, Bizkaian 22 kilometro baino gehitxoago, eta horri buruz hartzen doguzan egintzen eta ebazpenen ondorioak bere gain hartu behar dauz modu eskusiboan. Barriri dinot: hitzarmen hori indarrean egongo da emokida-aldia amaitu arte (2026ko zemendian), eta jarraipen- eta kontrol-batzorde bat ezarri da, eta hiru administrazio publikook batzorde horretako kide gara.

Gaur egun, hitzarmena onartzeko nahitaezkoak diran administrazio-izapideak egiten ari gara. Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, Gobernu Kontseilura datorren martian eroango dogula uste dogu, eta, ondoren, Batzar Nagusietara aurkeztuko da, adostasuna eskatzeko. Eta administrazio guztiek izapidetze hori amaitu ondoren, hitzarmena sinatu ahal izango dogu, eta horrelan indarrean sartuko da.

Bere egunean esan neban lez, behin funtzionamentu-araubide hori ezarrita, berme guztiakaz ekin ahal izango geunskio AP-68 autobidea Bizkaiko gastu-mugearen sisteman zelan integretan dan aztertzeari edo dirulaguntzak ezarteari. Halanda ze, Ganbera honetan erabagitako ibilbide-orri baten lehen helburua bete dogu, Ganbera honetan erabagitakoari jagokonez.

Bigarren helburuari jagokonez (laguntzak, dirulaguntzak edo gastu-mugan sartzea), ostera be azpimarratu gura dot emokida baten aurrean gagozala, emokidadun bategaz, hau da, Ministerioagaz, eta kudeaketea ez dau Bizkaiko Foru

Aldundiak egiten, eta ez dauz bidesariak biltzen, eta, halanda be, Ganbera honen aginduari jarraituz, borondate irmea agertu dogu egungo autobide sistema integralean sartzeko bideragarritasuna aztertu daiten.

Horregaitik, hitzarmenaren administrazio-izapideakaz batera, enpresa emokidadunagaz batera urratsak emoten joan gara, integrazino horrek, halan bajagoko, zer mekanismo ahalbidetzen dauzan ikusteko. Barrero dinot, alderdi guztientzat erabateko bermeagaz. Konpondu beharreko kakoen artean dagoz datuen babes, iruzurra saihesteko behar dan ekipamentu teknologikoa eta fisikoa, edo Interbiak eta Avasako sistema informatikoen arteko bateragarritasuna.

Kontuan izan behar dogu AP-68 autobidean ez dagoala gure autobideetan ezarritako ekipamenturik, ezta dirulaguntza horreek kudeatzeko eta iruzurra saihesteko behar dan ekiporik eta teknologiarik be. Eta gogoratu behar da ganbera honen agindua dala gai horreek argitzea eta adostea, hain zuzen be.

Halanda ze, matrikulak irakurteko kamerak behar dira, bidaiei buruzko datuak truketako sistemakaz interkonexinoa, euskarria emoteko sistemen neurriak ezarri, Datuak Babesteko Legeari jagokona apliketea... Eta horretarako, proiektuak egin behar dira eta inbertidu egin behar da.

Edozelan be, barrero dinot, beharrezko urratsak emoten ari gara Ganbera honen aginduaren arabera; aurrerapausuak emoten ari gara erakunde honen borondateaz kanpoko estatu-emokida bati eusteak dakarzan gaitasunak konpontzeko; AP-68 autobidea tarifen sistema integralean sartu ahal izateko urratsak, Bizkaiko bidesari-azpiegitura guztiak erispide komunakaz kudeatu ahal izan daiguzan... Izan be, lehenengo interesdunak geu gara, Andrade jauna. Eta behin baino gehiagotan esan deusudana dinotsut barrero. Ondo goaz, baina ondo egin behar dogu. Arinegi joan barik, “behia baino lehen zintzarria erosi barik”; behar diran bermeakaz. Horregaitik, nire ustez, Ganberearen agindua errespeteteaz gain, urratsak modu zehatz eta egokian emon behar doguz, eta alderdi guztientzat behar besteko bermeakaz.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Pradales Gil. En el turno de réplicas, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Pradales jauna. Errespetuz egiten dot berba beti; eta nire interpretaziotik ulertzen bada ez zaitudala errespetetan, parkamena eskatzen dot, baina errespetuz egiten dot berba beti, baina erabateko desadostasun politikotik. Hau da, nire ustez, zuek..., eta gure aurreko itauna egin genduanetik urtebete igaro ondoren Ganbera honetara gai beragaz etorriarazoteak erabateko borondate politiko faltea erakusten dau, nire aurreko agerraldian adierazo deusuedan lez.

Errioxan, Aragoian, Araban..., dirulaguntzea, autobideetako hobariak lortzeko akordioak daukiez. Ez dabe emokidadunagaz akordiorik behar. Araban, azaldu deusudan lez, orain dala 20 urte Arabako Foru Gobernuaren aldebakarreko dekretu batek ezarri ebazan hobariak. Ez dozue ezer adostu behar, zuk Via-T sistemeagaz adostu behar dozu, zuek Via-T sistemeari ezarten deusazuezalako onurak. Datuen, bitartekoen eta

kameren gainerako arazo teknologikoak azaldu deuskuzuz barriro, orain dala urtebete azaldu zeuskuzanak, eta, nire ustez, urtebetean aurrera egiteko astia euki dozue, ez? Bada, ez da ezer barririk aurreratu. Uste neban hauteskunde aurreko garaian gagozanez eta horrelakoetan bizkaitarren diruagaz daborduko promesak saldu ohi dozuezanez, Bizkaiko diruagaz akordioak beteten dozuezala esan ohi dozuenez..., kanpaineari hasierea emoten ari zariela, ez? Lehengo egunean udaletara hainbat milioi emongo zeuntsezala obrak egiteko. Lehengo egunean be zuk zeuk aurkeztu zenduzan Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbiderako eta Artxandako tunelerako arkuak. 3,5 milioi euro arku barriak jarteko, ordainlekuan ibilgailu bi ez diranean alkarregaz batzen inoiz be ez, baina zuok 3 milioi eta erdi euro gastauko dozuez autoak arinago joan daitezana..., izan be, Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean ez da..., ez dagoz inoiz ibilgailu bi, kabinean ordaintzeko ez dira inoiz alkartzen ibilgailu bi.

Tira, dinodan lez, 3 milioi eta erdi eurogaz, Bizkaiko diruagaz, gero Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen gainerakoan kamioientzat ezarri gura dozuezan arkuen proba egingo dala imajinetan dot. Uste neban gaur zeozer barria ekarriko zeuskula, eta hemen iragarriko zenduala AP-68ko bidesariak abiarazota egozala. Horren orde, batzorde teknikoaren hitzarmenari buruzko akordioak amaitu dirala esan deuskuzu, orain dala urtebete eta piku amaitu behar ziran arren. Pandemiak atzeratuarazo egin dauela dinozu. Nobedade hori ekarri deuskuzu, baina, jakina, barriro be atzeratu egiten dozu, ez? Izan be, batzorde tekniko horren ondoren, Ganbera honetara etorri beharko da hitzarmen hori, esan dodan lez, aldebakarreko dekretuz izan eitekeanean. Bien bitartean, gure bizkaitarrek, lehen esan dodan moduan, arabar batek ordaintzen dauena baino 1.518 euro gehiago ordaindu behar dabe urtean. Ez dogu horretarako justifikazinoa ulertzen, Ganbera honetatik igaro behar dan hitzarmen horren ondoren bidesariak ezarteko aukerea aztertzen hasiko zariela esan dozu-eta. Benetan, ez dot ulertzen. Errespetu osoz zera dinotsut, zure lanean itxikeria..., zure lanean ez, ezpada zure sailak hobariak ezarteko daukan itxikeriak borondate politiko faltetari erantzuten deutso, nire eretxian. Uste dot hori egiteko benetako borondate politikoa bazendue, egingo zeunkiela, ezta? Orain horrenbeste diru daukagunez... Lehengo egunean metroko 4. linea be iragarri zenduen..., 5. linea, parkatu. Hor egozan promesa guztiak... Orain hauteskunde-garaia heldu eta Bizkaiko diruagaz..., uste neban gaur batzorde teknikoarenaz gain beste zeozer iragarriko zeuskula.

Errespetu osoz dinotsut borondate politikoa falta dala.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Andrade Aurrecoechea. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Pradales Gil, tiene usted la palabra.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Harenbaten aldebakartasuna ez da erakunde honen estiloa ezta kulturea be. Beste esparru politiko batzuetan izango da, beharbada. Baina gogoeta horretatik harago, itxi eidazu kontu honegaz oroimen arean egiten, badauka-eta bere mamina, nire ustez.

Gure lurraldeko tartean AP-68 autobidea darabilen bizkaitarrei dirulaguntzak emoteko aukerea ez da gauza barria. Ganbera honetan orain dala hainbat urte planteau zan. Izan be, gogoratuko dozu 2012. urte inguruan Alderdi Popularra abstenidu egin zala foru-aurrekontuen inguruan, eta horreetan sartzen zan elementuetako bat, hain zuzen be, AP-68 autobideari hobariak emoteko edo dirulaguntzak sortzeko aurrekontu-partida bat zan. 900.000 euro. 2013an be bai.

Pentsau eizu zelako borondate politikoa eukan orduan Foru Gobernuak, Foru Aldundia bidesarien autobide nazionalen soziedade emokidadunetako Gobernuaren ordezkariari zuzendu jakola (horrelan deitzen zan kargua), Rajoy dalako bat Espainiako gobernuburu zala, eta Pastor dalako bat Sustapen ministro zala. Eta hara non jasoten dan erantzuna Aldundi honetan 2012ko martiaren 12an. Hitzarmen bat sinatzeari uko egiten eutsiela inoan erantzunak, edo, hobeto esanda, Avasaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean hitzarmen bat sinatzeko baimenik ez euskuela emoten.

Urte bereko apirilaren 4an, gora joteko errekursoa jarri zan Alderdi Popularraren Sustapen Ministerioaren autobide-emokidearen ordezkariaren aldebakarreko erabagiaren aurka. Eta hara non erantzunik be ez zan jaso. Eta 2013ko apirilaren 13an barrero egin genduan eskaera hori eta barrero ukatu eben.

Hau da, Alderdi Popularrak ezker eskuagaz Bizkaian emoten ebana Espainian eskoiagaz ukatzen eban. Eta horixe da foru-erakunde honek dirulaguntzei buruz zuokaz izan dauen hartu-emon. Halanda ze, uste dot borondate politikoa izan dogula, bai, hasiera-hasieratik. Akordio horretara heltzeko ezintasunak? Baita; beste errazoi batzuen artean, zure gobernuarenak, garai haretako Alderdi Popularraren gobernuarenak.

Aznar jaunak 2000. urtean hartu eban erabagia be zure gobernuari jagoko, hau da, emokidea 15 urtez luzatzea eta emokida hori 2026ra arte eroatea. Hori horrelan izan ez balitz, 2011. urtetik aurrera titulartasuna eta kudeaketea Aldundiarenak izango ziran eta tarifen jatsierak, hobekuntza-lanak, beherapenak, dirulaguntzak... ezarri ahal izango genduzan. Baina hori ez zan posible izan, besteak beste, Alderdi Popularrak, bere kabuz, Aznarren gobernuak, 2000. urtean, emokidea beste 15 urtez luzatzea erabagi ebalako. Halanda ze, Andrade jauna, ikasbideak gitxi, nire ustez.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Pradales Gil.

Y el segundo punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0000263](#))

Autor: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Asunto: Garantizar la transversalidad de las políticas de igualdad en el Sector Público Foral de Bizkaia.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0000263](#))

Expediente: ([11/B/18/0003167](#))

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0000263SE](#))

Egilea: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Gaia: Bizkaiko Foru Sektore Publikoan berdintasun-politiken zeharkakotasuna bermatzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000263SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0003167](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Urkaregi Etxepare, que ha presentado la iniciativa, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Dentro de poco será el 8 de marzo, el Día Internacional de las Mujeres. Y a este respecto habrá numerosas declaraciones a favor de la igualdad entre mujeres y hombres.

Pero lograr la igualdad no es cosa de un día y exige un trabajo diario. Y por parte de las instituciones públicas hacen falta compromisos concretos para la incorporación de la perspectiva de género, la perspectiva feminista, como línea transversal en las políticas públicas.

En Bizkaia contamos con la Norma Foral 4/2018 para la Igualdad de Mujeres y Hombres, vigente desde hace tres años y medio y que debe ser un instrumento para la incorporación de las políticas de igualdad como línea transversal.

Este compromiso está escrito, pero ¿cómo se están desarrollando las medidas definidas en la Norma Foral para la Igualdad?

EH Bildu considera importante que su evaluación se realice constantemente. Y así...

Decía que la Norma Foral de Igualdad está vigente desde hace tres años y medio y que debe ser un instrumento para la incorporación de las políticas de igualdad como línea transversal.

A pesar de que el compromiso esté escrito, nos preocupa cómo se están desarrollando, el análisis de cómo se están desarrollando las medidas descritas en la Norma Foral de Igualdad.

EH Bildu considera importante que su evaluación se realice constantemente. Y así lo hicimos. Presentamos una interpelación hace dos años, justo antes de la pandemia de la Covid-19. En esa época, el desarrollo de la Norma Foral estaba en sus inicios, ni siquiera existía el Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Transcurridos dos años más, consideramos importante volver a analizar cómo se está desarrollando la Norma Foral para la Igualdad.

Ya se han constituido los órganos para la igualdad, la mayoría en mayo de 2020.

El Consejo de Participación de las Mujeres celebró su primera reunión en noviembre de 2020 y está trabajando.

La Red Territorial para la Igualdad de Bizkaia se puso en marcha el pasado mes de septiembre.

Hau da, bi partaidetza-organoak, sailtako bardintasun-organoak eta sailen arteko organoak sortu dira. Baina Bardintasunerako Foru Arauan jasotako zeharkako neurriak, Aldundiko sailek eta Foru Sektore Publikoko erakundeek garatu behar dabezan neurri horreek, edo ez dira garatu, edo sano gitxi garatu dira.

Eta horregaitik, Itaun honetan Foru Sektore Publikoak garatutako politika publikoetan bardintasun-politikak zeharka zelan integretan ari diran aztertu gura dogu.

Y para ello, hemos analizado tres documentos:

-La propia Norma Foral 4/2018 para la Igualdad.

-El VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres, instrumento de planificación para el desarrollo de la Norma Foral.

-Y el Informe Previo del Impacto de Género de los Presupuestos de Bizkaia 2022.

Y ¿cuál es la primera conclusión que sacamos? Pues que la implicación de los departamentos de la Diputación en el desarrollo de las políticas de igualdad es muy diferente.

Si analizamos el VI Plan de Igualdad, hay 150 medidas y casi la mitad (71) dependen de la Dirección de Promoción de la Igualdad. Otras 10 medidas son compartidas: algunos departamentos desarrollarán 10 medidas, otros 6, 4, 3, 2...

Y hay un departamento que no es responsable de ninguna medida. Y es grave, porque ese departamento tiene una relación directa con las personas. Estamos hablando del Departamento de Acción Social, encargado del cuidado de personas mayores, personas con diversidad funcional y menores. ¿Cómo es posible llevar a cabo una política de cuidados sin desarrollar una política de igualdad?

Y nos aparece el mismo desequilibrio cuando analizamos el Informe Previo de Impacto de Género de los Presupuestos de 2022. Se han invertido 18,8 millones en acciones directas para la igualdad, de los cuales el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad invierte 11,7 millones de euros, y otros 2 millones en gastos de personal. En políticas de conciliación 4,2 millones de cara a la plantilla de la Diputación, y casi medio millón a la plantilla del IFAS. Entre los otros tres departamentos, casi 400.000 euros.

Pero lo que es más grave es que de los 9 departamentos de la Diputación, 5 departamentos no invierten nada en acciones directas de igualdad: Sostenibilidad y Medio Natural, Acción Social, Hacienda, Transportes e Infraestructuras.

Y dirán ustedes, “pero el 35,6% del presupuesto se invierte en acciones transversales, 605 millones”.

Pero ¿a qué llaman ustedes “transversal”? Este año no han publicado las fichas de los programas, pero si miramos las fichas de años anteriores lo que se hace es recoger los datos desagregados por sexo o utilizar un lenguaje no sexista. Y, como mucho, incluir cláusulas de igualdad en los pliegos de los contratos.

Zeharkakotasuna ez da, beste barik, datuak sexuaren arabera jasotea, edo hizkera ez-sexista erabiltea. Datuak bereiztea, zalantza barik, errealidadea ezagutzeko eta desbardintasunak barruntetako lehenengo urratsa da. Baina ezin gara hor geratu. Errealidade hori aldatzeko neurriak hartu behar dira, arlo guztietan bardintasun-politikak garatzea desbardintasun horri aurre egiteko. Horixe eskatzen deusku mobimentu feministeak erakunde publikooi: dagoan errealidadea aldatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako bardintasuna lortzeko.

Por eso, la primera pregunta de nuestra interpelación es: ¿cuáles han sido los obstáculos con los que se ha encontrado el Órgano para la Igualdad para que los distintos departamentos desarrollen sus políticas de igualdad?

O esta otra: en cuanto a la responsabilidad de desarrollar las medidas del VI Plan de Igualdad, ¿por qué no se ha conseguido la implicación de todos los departamentos de la Diputación?

Una medida que se plantea en el VI Plan de Igualdad es que se revise la Guía Práctica para la Contratación Administrativa, ampliando o modificando las cláusulas propuestas e incorporando cláusulas para la sensibilización, prevención, atención y reparación de víctimas de violencia machista.

Según el Plan iba a realizarse en 2021. No sé si esta medida se ha llevado a cabo, pero al menos la Guía Práctica no ha sido modificada. Ayer a la noche no, al menos. Y no solo eso. Según la Disposición Adicional séptima de la Norma Foral de Igualdad se concedía un plazo de un año para llevar a cabo esas modificaciones, es decir, para septiembre de 2019 tenían que estar hechas.

Y lo mismo ocurre con la adecuación a la Norma Foral de Igualdad de la norma en materia de subvenciones, que viene reflejada en la Disposición Adicional octava.

Por eso preguntamos: ¿por qué no ha sido posible revisar el desarrollo normativo en materia de contratación o el desarrollo normativo en materia de subvenciones?

Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Foru Arauak eragina izan behar dau Bizkaiko Foru Sektore Publikoaren jardura osoan, baina zer egin da bardintasuna txertatzeko Foru Sektore Publiko honetako entidateek bultzatutako politiketan?

VI. Bardintasun Planean LANTIK agertzen da, 3 neurrigaz. Garrantzitsua erexten deusagu. Baina Lantik baino ez da agertzen. Gero, Foru Sektore Publikoaren aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzeari buruzko neurri bat dago, eta foru-erakundeetako bardintasun-planak be aitatzen dauz. Baina formulazino orokorrak dira. Bat aurkitu dogu, Ekonomia Sustatzeko Sailarena, eta bertan bai zehazten dala “Sail honen mendeko soziedade publiko bakotxak emoten dauzan zerbitzuetan generoak daukan genero-eragina aztertzea”. Baina ez dago Foru Sektore Publikoko erakundeei buruzko neurri zehatz gehiagorik.

Por eso, la última pregunta de nuestra interpelación es: ¿qué medidas van a adoptar para que las políticas de igualdad se integren de forma efectiva en todas las políticas del Sector Público Foral de Bizkaia?

Las políticas de igualdad deben integrarse necesariamente en las políticas públicas de todas las áreas. Sabemos que no es una tarea fácil, sabemos que muchas veces hay resistencias, pero tenemos que tener claro que si no las afrontamos, no conseguiremos una nueva Bizkaia donde mujeres y hombres vivamos en igualdad.

Bardintasunerako Foru Araua urrats bat izan zan, urrats garrantzitsua, baina ezin da ezebezean gelditu, eta ezin da ia-ia Enpleo, Gizarteratze eta Bardintasun Saitetik bakarrik garatu. Bardintasunerako Foru Arauak Aldundiko sail guztiak inplikatu behar dauz. Foru Arau horretan Foru Aldundiko sail guztiak eta Foru Sektore Publikoko entidate guztiak garatu beharreko neurriak proponiduten dira.

Eta neurri horreen garapenari buruz honako itauna aurkeztu dogu: zer egin da eta zer egin beharko litzateke bardintasuna zeharka garatzeko Aldundiaren politika publikoetan?

El objetivo de EH Bildu es avanzar en la igualdad real entre mujeres y hombres y dar pasos hacia una Bizkaia feminista.

Y en dicho sentido hemos formulado esta interpelación. Para avanzar en la transversalidad de las políticas de igualdad. Esperamos que en su respuesta tengamos más explicaciones.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y en el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Laespada, tiene usted la palabra.

La Sra. **LAESPADA MARTÍNEZ** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Urkaregi andrea. Eskerrik asko onartzea hainbeste kostau jakun Bardintasunerako Foru Araua balioestearren. Eskerrik asko, horrezaz gain estimau egin dozulako, eta modu berezian eskertzen deusut. Eta orain arte egiten ari garan guztiaz egin dozun ahaleginagaitik eta ebaluazinoagaitik be bai; izan be, era berean, egia da garrantzitsua dana martiaren 8a baino lehenagoko Osoko Batzarrera agenda feministeari buruzko gaiak ekartea danok hemen izan behar dogun eztabaidan.

Bi hutsune be adierazo gura deusudaz. Bat..., ahaztu egin jatzuzan bi gauza diralakoan nago. Lehenengoa da erdian hauteskunde-prozesu desbardinak izan doguzala, eta horrek batzuetan, abiarazoteak, gelditzeak eta itzulerak batzuetan administrazioaren egiturak gurako geunkena baino motelago joan daitezala eragiten dabela. Baina, bigarrenik, geldialdi sano garrantzitsua..., hori be ez dozu aitatu, baina niri aitatzeta gustetan jat, hau da, bi urte daroaguzala pandemian. Bi urte dira preminazko gauzak gauza garrantzitsuen gainetik jarri doguzala. Eta horrek batzuetan preminazkoetan sano sartuta egotea ekarri deusku. Egia da bardintasuna beste guztia baizen preminazkoa dana, eta bat nator zugaz, eta bat gatoz, baina konprometiduta gengozan personon bizitzeari eusteko lanean.

Galdera desbardinak egin dozuz eta egin deustazuzan galdera horreei erantzuten saiatuko naz.

Lehenengoan zera dinostazu, ea Bardintasun Organoak ze oztopo aurkitu dauzan sail ezbardinek bardintasun-politikak garatu dagiezan.

Zeharkakotasuna bera. Hain zuzen be, zeharkakotasuna bera, horrek antolaketa-kultorea aldatzea dakarrelako egin-eginean be. Zeharkakotasun-lana egunero egiten da, egunez egun, eta Aldundian behar egiten dauen persona bakotxa konbenziduta. Beti entzun deustazu niri jesarri, finkatu, sendotu eta oinez jarraitzea gustetan jatala. Ez jat arinegi ibiltea gustetan, martxan jarten dodan lehenengo politikea edo martxan jarten doguzan lehenengo neurriak finkatzea lortzen ez badot. Finkatu eta aurrera egiten jarraitu.

Halanda ze, Aldundiko maila guztietan eragina izateak Aldundiko maila guztiakaz lan egin behar dogula esan gura dau, eta horrek esan gura dau lan-dinamika

asko sortu doguzala, eta horreei eskerrak emoten deutsedaz, batez be funtzionarioei, gugaz behar egin dabelako bardintasun-egiturak egiteko eta finkatzeko. Bardintasunerako VI. Plana ahalik eta modu kolaboratiboenean egin dogu, sail guztiakaz eta persona guztiak inplikauta.

Halanda ze, beraz, zeharkakotasuna bera, hain zuzen be. Ez da behar beste ezer esaterik: zeharkakotasuna gura dogunean, gelditu, finkatu, eztabaidatu, konbenzidu eta aurrera egiten dogu.

Zera dinostazu, zergaitik ez dan posible izan Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako 4/2018 Foru Arauak zehazten ebazan preminazko neurriak gauzatzea. Tira, ez nago ados zure oinarriagaz: preminazko neurriak danak edo ia danak hasi dira. Egin beharreko abiaduran egin ez diran egokitzapenak eta gauzak geratuko dira, bai, baina preminazko neurri guztiei ekin deutsegu.

Bizkaiko Foru Aldundiaren egiturak egokitu doguz. Bardintasunerako unidade bakarra eta eskusiboa sortu dogu. Zuzendaritza horretan behar egiten daberen teknikarien kopurua bikoiztu dogu. Une honetan bi administrari, sei teknikari, administrazino orokorreko teknikari bat, zuzendaritzako idazkari bat eta idazkari tekniko bat daukaguz. Eta askoz egitura txikiagotik gatoz. Zuzendaritza-organo osoaren kualifikazino-maila handitu dogu. Eta, gainera, une honetan lan-eskaintza publikoak egiten eta lanpostuak finkatzen ari gara.

Ondo esan dozun moduan, Aldundiko bardintasun-egituretan zera egin dogu..., sailen arteko batzordeak sortu doguz, sail barruko batzordeak, Bardintasun Taldea, Aldundiko egitura organikoko dekretu guztiek jasoten dabez normalean zerbitzu orokorrak eta Bardintasunerako unidade eskudunak esleituta dagoz, eta sailtako organo guztiek onartu dabez sailen arteko batzordeak eratzeke foru-aginduak.

VI. Planaren diagnostikoa egin dogu eta gauzatu, eta 42 bilera egin doguz bardintasun-batzordeetan, sailen arteko 12 batzorde, 12 bilera politiko, 17 bilera tekniko... Hemen jesarten dan diputadu bakotxagaz eta kabineteagaz batzartu nintzan azaltzeko, Bardintasunerako Foru Plana zer izango zan azaltzeko, euren guztien inplikazinoa egon eiten.

Baina, batez be, garrantzitsuak iruditzen jatazan dinamika parte-hartzaile asko sortu doguz. Benetan dinotsut. Garrantzitsu-garrantzitsua iruditzen jat Aldundi osoaren lankidetzeta. Ondo esan dozun lez, Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua sortu dogu, ia 40 alkarte daukaguz, 39 alkarte Partaidetza Kontseiluari lotuta, 3 batzar egin dira, 30 bilera egin dira hainbat talde eta batzordegaz... Dana dago martxan.

Eta daborduko martxan dago Partaidetza Kontseiluaren 2022rako jardueren egutegia. Emakumeen eta Gizonen bardintasunerako lurralde-sarea sortu dogu. Horrek udalerrriak mobidutea be badakar, eta 62 udalerrigaz sortu dogu sarea. Eta batzordeak egin dira, bai alderdi politikoenak, bai bardintasun-teknikarien taldeenak.

Bardintasunerako Foru Arauaren hirugarren Xedapen Gehigarria ezarri dogu, finantzaketari buruzkoa, emakumeen eta gizonen bardintasunera bideratutako kudeaketa propioko aurrekontuaren % lagaz, eta genero-ikuspegidun aurrekontua.

Aurrekontua genero-ikuspegiagaz egiten dogun laugarren aurrekontua da. Nik ez dakit administrazino askok esan leikien aurrekontua genero-ikuspegiagaz egiten dabela eta Aldundi osoan txertatu dabela. Aldundiaren 85 programetan. Ez dakit zenbat administrazinok esan leiken hori, Urkaregi andrea, benetan dinot. Ez dakit zenbatek. Baina badago... Egun baten zenbatuko dodaz hori esan leikien administrazinoak. Beharbada ez

dago bat be.

Guztiok igon dogu exijentzia-mailea. Izan be, aurrekontuak genero-ikuspegiagaz egin genduzanean, gauza batzuk azaleratu genduzan azkenekoan, maila jasten ari zala emoten eban-eta, baina kontua da askoz zorrotzagoak izan ginala, bere egunean Batzar Nagusietan azaldu neban moduan.

Indarkeria Matxistearen Behatokiko adierazle guztiak egokitu doguz Istanbulgo Hitzarmenaren definizinoei be heltzeko. Hainbat bilera sartu doguz, adierazleak egindako lanak, Behatokiak neurtu behar dauena neurtu dagian. Salerosketaplana eguneratu dogu, emakume zaurgarrienak Aldundiaren funtsezko helburua izan behar diralako, edo, behintzat, ezinbesteko begiradea eurakan ipini.

Kontratazinoari be heldu deusagu zazpigarren Xedapen Gehigarrian. Kontratazino Zerbitzuagaz lankidetzan, bertako beharginek eta Bardintasun Zuzendaritzako beharginek berenberegiko prestakuntzea jaso dabe kontratuetoako bardintasun-klausulen arloan. Puntu garrantzitsu bat da, eta bat gatoz biok horretan. Eta Gizarte Klausulen Gidea egokitzeko prozesuan gagoz.

Prestakuntza hori egin da, eta 14 lagunek parte hartu dabe, eta egiten ari garan gida horren lehenengo zirriborroa dago. Kontratazino Zerbitzuak eta Bardintasun Zuzendaritzeak Santiago Lesmesen laguntza teknikoa kontratau dabe prozesua egiten laguntzeko. Bi unidate horreek beharren hasi dira eta gidea onartzeko prozesuan dagoz, lehenengo eta behin horren eraginkortasuna egiaztetako, eta gero ondo dabilen ikusteko prozesu pilotu bat gauzatu daiten, eta gidearen helburua ea beteten dan, tira.

Sexuan oinarritutako sexu-jazarpenaren protokoloa eguneratu dogu Bardintasun Zuzendaritzearen eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzearen artean. Gizarte Ekintzagaz batera, etxeetan personen zaintza informalar buruzko azterlan kuantitatiboari buruz egiten ari garan lanari ekin jako.

Eta VI. Planaren neurriak garatzeko erantzukizunari jagokonez, zergaitik ez dan lortu sail guztien inplikazioa be galdetu deustazu. Maila desbardinetan, lortu dogu. Sail guztiak ari dira horretan. Danak; izan be, aurrekontua genero-ikuspegiagaz egiteari ekiten deusagunean eta 115 persona gugaz lanean eta lankidetzan aritu diranean, horreek sail guztietakoak dira. Une horretan, zeharka lan egin beharreko sail guztiak sartu dira, ez neurri zuzenetan, zuk adierazo dozun moduan, baina bai zeharka, gorabehera desbardinakaz.

Sail guztietako programa guztiek parte hartzen dabe genero-ikuspegidun aurrekontu-estrategia barrian, eta, nire eretxian, funtsezkoa da bardintasuna zeharkakoa izatea. Nire helburu nagusia zeharkakotasuna da. Primeran dago neurri zuzenak hartzea, jakina, eta gora egiten jarraitu behar dogu, jakina, neurri zuzenak egiten jarraitu behar dogu, sail bakoetean, jagokon arlo bakoetean, baina zeharkakotasuna emoten badogu, horrek iraun egingo dau. Gitxienez, modu horretan..., neurri zuzen bat agertu edo desagertu egin leitekela, baina zeharkakoa bada, geratu eta iraun egingo dau.

Foru-alkarteak aitatu dozuz. Foru-alkarteetan be jardun dogu. Arealan motelago, dana batera ezin dogulako hasi, baina une honetan 21 foru-erakundegaz ari gara lanean. Zer egin dogu? Bada, Foru Sektore Publikoko erakundeak sailerako sail barruko batzordeetan sartu doguz, eta, horrelan, VI. Foru Planaren prestaketan eta diagnostikoan parte hartu dabe. Zeharkako neurri guztiek eragiten deutsee eta jorratuko egingo dira, baina, gainera, Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritza Nagusiagaz berenberegiko estrategia bati ekin jako, eta estrategia hori genero-ikuspegia Foru Sektore Publikoko erakundeetan txertatu daiten bideratuta dago. Eta Sektore Publikoko 21 erakundeetako

diagnostiko bat egiten parte hartu dogu, bardintasunaren alorrean bete behar dabezan betebeharrak zeintzuk diran ikusteko eta harago joateko. Harago joan arlo horretako aukerei jagokenez, eta horretarako laguntza tekniko bat be kontratau dogu, prozesu horretan (une honetan kontratazino-prozesuan dago) zerbitzuak sexuaren edo erregistroen arabera bereiztetik harago begiratzen jarraitu ahal izan daigun, edo ordainsarien plan edo erregistroen arloan. Harago joan. Horretan ari gara, hatan be.

Eta arabere gehiago, aldi berean, Denon Artean plataforman parte hartzen ari gara. Plataforma hori Foru Sektore Publikoak daukan intranet-a da, eta bertan bardintasunerako politikei buruzko atal berezi bat dogu, Bardintasunerako Zuzendaritzatik lantzen ari garana.

Erantzun izana espero dot, eta zure esanetara naukazu.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Laespada. Y en el turno de réplicas, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta.

Buenos días de nuevo, y muchas gracias, Teresa, por las explicaciones facilitadas. Pero le tengo que decir, por una parte, que nuestra pregunta se centraba en las medidas que deben llevar adelante el resto de los departamentos, y usted de nuevo me ha mencionado sobre todo lo que su departamento lleva a cabo, y lo he dicho: creo que no puede ser que casi la totalidad de las cuestiones de la Norma Foral de Igualdad las lleve a cabo su departamento, que debemos implicar a todos los departamentos.

Eta horretan, bada, uste dot zure agerraldian zera ulertu dodala, edo susmau dot beharbada ez dogula ulertzen zer dan zeharkakotasuna; izan be, nireztat, bardintasun-politikak zeharkakoak izatea sail guztiek, eta bakotxak bere arloari jagokenez, bardintasun-politikak garatzea da, baina garatu dagiezala bardintasun-politikak. Euren sailak daroazan politiketan desbardintasunari aurre egiteko neurriak hartu dagiezala, baina bardintasunean zuzenean inbertidu behar da. Ez zure sailaren inbersinoa, ezpada gainerako sailena. Halanda ze, ez dakit sano argi dagoan, baina horren inguruan ezbardintasunak daukaguzala eretxi deusat.

Y yo sí que comparto que la inclusión de la transversalidad es tarea difícil, y que se precisa de un cambio de la organización cultural. Con eso estoy totalmente de acuerdo, y es verdad, yo le he llamado resistencia. Puede haber diferentes resistencias, y algunas de ellas es que nosotros aquí tenemos una organización en la que los departamentos son compartimentos estancos y no se promueve algo entre todos/as. En ese sentido hay mucho que hacer y, bueno, yo he mencionado unos plazos, pero, claro, son plazos. La Norma Foral de Igualdad está vigente desde hace tres años y medio, y vamos muy lentos. Yo no digo que vayamos de forma precipitada. Antes ha dicho usted que primero hay que dar un paso y asentarlos. Vale, sí, pero que los pasos se den sin interrupción. Y ha mencionado usted la pandemia y tal..., sí, pero bueno, yo creo que se pueden hacer muchas cosas, y no podemos pensar siempre que las cosas se han retrasado por la existencia de la pandemia.

Hemos puesto sobre la mesa un elemento, y no ha respondido usted al

respecto. Que la implicación de los diferentes departamentos en relación a las políticas de igualdad es muy diferente. Que hay un gran desequilibrio, y yo creo que en eso sí que hay que pensar algunas medidas o algo. Usted, bueno, ha agradecido al colectivo trabajador de la Diputación, a todo el personal, y está bien, pero creo que es evidente que existe un gran desequilibrio. Y, lo siento, pero no es verdad que todos los departamentos estén implicados en el Plan de Igualdad, en diferentes niveles, pero bueno.

Le pondré un ejemplo. El Sistema Público de Cuidados. El Sistema Público de Cuidados será el tema elegido por el movimiento feminista para el día 8 de marzo. Y ¿cuál es la respuesta que dará o que está dando la Diputación Foral de Bizkaia a esta cuestión?

En el VI Plan de Igualdad se incluye un programa, denominado “Desarrollo de la economía feminista de los cuidados”. Muy bien. El objetivo es “Definir la práctica de la aplicación de la economía feminista de cuidados en el Territorio Histórico de Bizkaia”. Muy bien.

Hay cinco medidas. Las dos primeras:

1. Realizar un proceso de reflexión-diagnóstico-capacitación sobre economía feminista de los cuidados y sus implicaciones en las políticas del Sector Público Foral (2022-2023).

2. Diseñar una línea estratégica de trabajo, estable y permanente, en materia de economía feminista de los cuidados (2023).

¿Cuál es el problema que vemos? ¿De quién es la responsabilidad? De la Dirección de Promoción de Igualdad. Y el departamento responsable de la mayoría de los servicios sociales, ¿dónde está? ¿No está? Entiendo que el Departamento de Acción Social deberá aplicar esta línea estratégica de trabajo, pero no puede estar *missing*. No puede estar *missing*. ¿Por qué no se ha definido como una medida compartida entre el Departamento de Acción Social y la Dirección de Promoción de Igualdad?

Eso es lo que hay que hacer. Eso se ha hecho con el Departamento de Hacienda y Finanzas para incluir la perspectiva de género en los presupuestos. Pero para llevar adelante el Sistema Público de Cuidados, ahí no aparece Acción Social. Y la situación es preocupante, más aún cuando leemos esto en el Informe Previo de Impacto de Género de los Presupuestos de 2022:

“Mendekotasunerako Prestazino eta Laguntzen, Adinekoen, Desgaitasunen bat daben Personen, Balorazinoaren eta Orientazinoaren programak, 2022ko GEAEren arabera (Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazinoa), ez jagoke genero-eraginik”. Ez daukat ezer esateko!

Datu bat baino ez: Mendekotasunerako Prestazinoetan familia-inguruneko zaintzarako prestazinoa dago. Zelan esan lei txosten baten prestazino horrek ez daukala genero-eraginik? Ikuspegi feministea daukan Zaintza Sistema Publiko bati erantzun gura badeutsagu, ez daukat zalantzarik Gizarte Ekintza Saila inplikau behar dana, eta hondinokarren ez dot ikusten. Azterketa bat egingo dala adostu da hemen, hori bai, baina hori zainketen zati bat dala erexten deusat nik. Baina, nire ustez, horrelan egin ezik, Gizarte Ekintza inplikau ezik, ekonomia feministeari eta zaintzei buruzko txosten polit baten geratuko da, baina ez da praktikara eroango. Horregaitik, EH Bildutik bardintasun-politikak zeharkakoak izan behar dirala azpimarratzen dogu.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. Y en el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Laespada, tiene usted la palabra.

La Sra. **LAESPADA MARTÍNEZ** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, Urkaregi andrea. Ba, bai. Sail guztiak inpliketeak esan gura dau guztiakaz beharren hasten garanean zeharkakotasunaren parte diran persona guztiak dagozala. Zeharkakotasuna, hain zuzen be, danak egotea da. Eta genero-ikuspegidun aurrekontuak egiten ari ginanean, danak egozan. Danak agertzen dira, sail guztiak dakie zer daukien, eta hurrengo aurrekontuetan orain bestean inplikauko dira danak. Daborduko mobiduko ez diran neurriak ezarri doguz. Eta horrek sail guztiak esan gura dau. Eta bakotzak bere burua irudikatzen dau. Eta zuk irudiaren datuak daukazuz gardenak izan garalako. Ezpabere, ez zan irudiaren daturik egongo. Eta irudia dago genero-ikuspegidun aurrekontuak egin doguzalako. Horregaitik dago irudia. Halanda ze, irudia sortu eta eregin egiten dogu.

Gizarte Ekintza Saila inplikauko da, bai horixe, zelan ez da ba inplikauko, inplikauta dago-eta. Inplikauko da, jakina, eta beharrean jarraituko dau, jakina. Ahal dauen erritmoan eta neurrian egingo dau, baina egin egingo dau. Inplikauko da, jakina, badaki-eta Aldundiaren konpromisoa dana.

Eta hemen gagozan sail guztiak inplikauko dira. Danak. Ahal dogun erritmoan eta ahal dogun neurrian. Eginean-eginean joango gara. Baina sail guztiak egingo dabe. Guztiz seguru nago. Eta ezpabere, neuk, Diputadu honek erakarriko dauz, baina badakie egingo dabena. Horretarako konprometiduta dagozalako. Eta badakit zer alde dagoan zeharkakoaren eta zuzenekoaren artean, e? Ezin hobeto. Baina barriro dinotsut. Gurago dot zeharkakoa, oraingoz behintzat, eta gero joango gara ekintza zuzenetara.

Beste barik, Urkaregi andrea. Eskerrik asko zure galdereagaitik. Eskerrik asko gai feministak mahai gainean jarten jarraitzeagaitik, baina feminismoa danona be bada.

Muchas gracias a todos/as.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Laespada.

Y el tercer punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0000273](#))

Autor: Benito Ziluaga, Xabier (EB)

Asunto: Las deficiencias en las intervenciones

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0000273SE](#))

Egilea: Benito Ziluaga, Xabier (EB)

Gaia: Bizkaia Prest dalakoak kudeatutako

de emergencias por rescate o búsqueda en montaña gestionadas por Bizkaia Prest.

Documento

(R.E.11/E/2022/0000273)

Expediente: [\(11/B/18/0003171\)](#)

Principal:

mendiko erreskate edo bilaketen ondoriozko larrialdietako esku-hartzeetako hutsuneak

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2022/0000273SE\)](#)

Espedientea: [\(11/B/18/0003171\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Tira, eskerrik asko, Mahaiburu andrea. Egun on guztioi.

Gaurkoan Bizkaia Prest dalakoak kudeatzen dauzan mendiko erreskate edo bilaketen ondoriozko larrialdietako esku-hartzeetako hutsuneen inguruan galdetzen deusagu Bizkaiko Foru Aldundiari.

Bizi-bizi dagoan gaia da eta jente-artean garrantzitsua Bizkaian entzule gehien daukazan irriatiak eta idatzizko hainbat komunikabidek argitaratutako informazioaren arabera; eta interes orokorreko gaia be bada, Bizkaia osoko herritarren segurtasunari eragiten deutso-eta.

Gaur hona dakargun gaia Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztiei jagoke. Lehenengo eta behin, Herri Administrazio Sailari jagoko, berak kudeatzen dau-eta Bizkaia Prest, hau da, Bizkaiko larrialdiak kudeatzeko zentroa; eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari be bajagoko, Basozaintzea sail horretan dagoalako.

Bizkaia Prest zentroan dago Bizkaiko Foru Aldundi honi jagokon hutsegitearen zati bat, eta konponbidearen alde bat be Bizkaia Prest zentroan dago eta, beraz, Herri Administrazioen Sailean.

Horixe da gaurkoan dakargun egoera. Bizkaian mendian desagertutako persona bat bilatzeko edo erreskatetako operatibo bat aktibetan dan bakotxean, Bizkaiko Foru Aldundiko 80 profesional ezer be egin barik ixten dira, operatibo muetea edozein dala be, larrialdiaren larritasuna edozein dala be, edo bilaketa edo erreskate horren iraupena edozein dala be.

Egun batzuetako mendiko bilaketa-operatibo baten laguntzeko prest dagozan boluntario-taldeak mobilizetara heldu gara, Bizkaiko Foru Aldundiko Basozaintza Zerbitzuak dei bakar bat be jaso ez dauen bitartean.

Sute batera suhiltzaileak abisau beharrean, lehenengo auzokoak ur-ontziakaz bialduko bazenduez lez da hori. Ez leuke inongo logikarik eukiko.

Bizkaiko Basozainak zeregin horretarako prestautako eta behar dan moduan hornidutako basozainen taldea da. Landa-inguruneetan bizi diranak ezagutzen dabez. Tetra igorgailuak, geo-lokalizatzaileak eta lur orotako ibilgailuak daukiez, baina, batez be, ingurua ezagutzen dabe, eta egoera horreetan horixe da garrantzitsuena. Egunero-egunero gure mendieten legea beteten dala ikuskatzen eta gu guztion segurtasuna jagoten daben profesionalak dira. Eztabaidaezina da mendiko bilaketa- eta erreskate-operatiboetan euren parte-hartzea onuragarria izango litzatekena, eta horrelan ez izateak iges egiten

deutso logika guztiari.

Eta halantxe autortzen dabe basozainen eginkizunak arautzen dabezan estaduko legeek be. Babes Zibileko Sistema Nazionalaren 17/2015 Legeak, 17. artikuluan, honako hau dino: “Babes zibileko larrialdietan esku hartzeko eta laguntzeko zerbitzu publikotzat hartuko dira prebentziorako, suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak”, bai eta “baso-teknikariak eta ingurumen-agentek”. Eta babes zibileko zerbitzuen, Segurtasun Indar eta Kidegoen edo osasun-arretako zerbitzuen parean jarten dau.

Beste alde batetik, Larrialdiak Kudeatzeko 1/1996 Legearen 34. artikulua honako hau dino suteak prebeniduteko eta itzaltzeko eta salbamentuko zerbitzuetako kideen inguruan: “Sute- eta salbamendu-zereginetan agintaritzaren mandataritzat joko dira, lanean ari direnean edo, lanean ez egon arren, ezbeharren batean parte hartzen dutenean”.

Zoritxarrez, Bizkaian hori ez da kontuan hartzen ari, eta, zeozelan esatearren, estaduko legeria hori ia modu alegalean beteten ari gara. Basozainak gitxiegi erabilten ari gara, baina okerragoa dana, errazoi horregaitik arriskuan jarten ari gara uneren baten mendiko bilaketa- edo erreskate-operatibo bat behar daben edo behar izan daben personen osotasuna eta bizitzea.

Mendian desagertutako bilaketa- edo erreskate-operatibo baten, funtsezkoak dira lehenengo orduak. Zenbat eta lehenago hasi zereginak, orduan eta aukera handiagoa arrakastea izateko. Lehenengo orduak ezinbestekoak dira desagertutako personak aurkitzeko. Hori dino Barne Ministerioaren Segurtasun Indar eta Kidegoen Jarduera Protokoloak, desagertutako personen kasuen aurrean. Honako hau be badino: “eskumen bakarra..., Segurtasun Indar eta Kidegoetako unidade eskudunak desagertzearen salaketea jasoten dauenean, lehenengo minutu-orduak sano garrantzitsuak diranez, honako hau egingo dabe: desagertzearen eremuan dagozan zerbitzuko irradi-patruilei berehala jakinarazoko deutsee”. Eta honako hau be badino: “Horrelan, eskura dagozan baliabideak maximizetea eta erantzuteko gaitasuna al bait arinen aktibetea lortu gura da, batez be desagerpenaren lehenengo orduetan, horrelango gertakarien aurrean eraginkortasuna handiagoa izan daiten”.

Hain zuzen be, diputadu andrea eta Foru Gobernuko jaun-androk, bilaketa- edo erreskate-operatibo baten eraginkortasuna efizientziaren gainetik jarri behar da. Izan be, bizitzak salbetea da kontua, ez esku-hartzeak egitea baliabideen erabilerea minimizauta.

Nire taldean, Bizkaian 2019tik hona bilaketa eta erreskate bidez egin diran esku-hartze guztien bilera-agiriak aztertu doguz. Operatibo horreetako batzuk jenteeurrean ezagunak dira. Batzuek amaiera zoriontsua izan dabe; beste batzuek, zoritxarrez, amaiera tragikoa. Uste dot ez jagokula gertakari horreetako bakotxaren zehetasunak emotea, azken finean danok irakurten dogu-eta prentsea, baina esango dot 2019tik hona Bizkaian izan diran 800 esku-hartze horreetatik bakar baten be ez dala eskatu basozainen partehartzerik. Bakar baten be ez, barriro dinot.

Orain eskumenen gaian sartuko gara, edo sartuko naz, Foru Gobernua hortik iges egiten saiatu aurretik. Zein da Bizkaiko Foru Aldundiaren zeregina honetan guztian? Eusko Jaurlaritzeagaz partekatutako erantzukizuna behintzat badago hemen. Larrialdietako Euskal Sistemeak bere taktika operatiboetan finkatzen dau zein kidego mobilizau behar dan larrialdi bakotxean. Desagertutako personea erreskatetako edo bilatzeko, basozainak mobilizazino geroratu lez agertzen dira, eta baita suhiltzaile-unidade batzuk be, Gurutze Gorria, Dya..., eta operatibo horreetarako normalean zerbitzu horreek mobilizetan dira. Une horretan larrialdi hori kudeatzen ari dan larrialdietako

koordinatzaileak egokitzat joten dauenean egiten da mobilizazio geroratu. Horraino Eusko Jaurlaritzaren eskumena dala esan geinke.

Baina, lehenengo eta behin, Bizkaia Prest dalakoaren zeregina da Bizkaiko zerbitzuak koordinetea, larrialdi-zerbitzurik onena emoteko. Hori Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena da.

“SOS Deiak-etik jasoten doguz abisuak, baina badaukagu erabagiteko tartetxo bat”. Horixe esan eban Mendietako buruak Bizkaia Prest Larrialdietarako Zentrora egindako bisitan. Zeu be, diputadu andrea, hantxe zengozan, Ganbera honetako alderdi politiko guztietako ordezkariak lez. Eta horixe erakusten dabe bilera-agiriek. Horixe erakusten dabe bilera-agiriek. Zeozelango tartea daukazue. Normalean, Bizkaia Prest Zentroak suhiltzaileak mobilizetea eskaintzen dau, larrialdietako koordinatzaileak (BZ) eskatu aurretik be. Kasu batzuetan, eskatu barik be mobilizau dira. Zergaitik? Bada, bilaketa-lekutik hur dagozalako, esaterako. Hori logikoa da, baina egundo ez da egiten Basozaintza Zerbitzuaren kasuan, inoiz be ez.

Horrezaz gainera, bigarrenik, Basozainen Kidegoa eta bere zereginen garapena, salbamentuarena be bai, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena da.

Eta hirugarrena eta azkena. Izan be, Bizkaia da ezaugarri horreetako larrialdietarako zentro bat daukan lurralde historiko bakarra, hau da, Bizkaia Prest, baina, aldi berean, Euskadiko eta Estaduko lurralde bakarra da, non basozainek ez daben mendiko bilaketa- eta erreskate-operatiboetan parte hartzen.

Hiru errazoi garrantzitsu horreek dirala eta, gai hori zuon erantzukizuna eta eskumena da. Eta, zoritxarrez, ikusten dogu, bai ekintzaz, bai omisinoz, Foru Gobernuak erantzukizun zuzena daukala gai honetan, eta, beraz, bere esku dagoala konponbidearen zati bat be.

Halanda ze, itaun honen azalpenagaz amaituko dot, eta zera jakin gura dogu:

-Lehenengo eta behin: zelan azaltzen eta baloretan dau Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Foru Aldundiko Baso Zerbitzua M1, M2 edo Koba taktika operatiboetarako inoiz ez mobilizetea?

-Bigarrenik, jakin gura dogu Bizkaiko Foru Aldundiak uste ete dauen segurtasun-zerbitzurik eta onena eskaintzen dauela, baliabideak mobilizau barik ixten dauzan arren.

-Eta hirugarrenik, eta azkenekoz, zera galdetu gura dogu: ze ekinbide darabil asmotan Foru Aldundiak hutsune hori zuzentzeko?

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Benito Ziluaga. En el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Etxanobe Landajuela, tiene usted la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Lenenengo eta behin, eskerrak emon gura deusudaz Bizkaian bizi, lan egin edo bisitetan dabenek gure lurraldean ahalik eta segurtasun-mailarik handiena euki dagien erakusten dozun interesagaitik, hain zuzen be, kasu honetan, mendiko, landa-inguruetako eta uri-inguruetako bilaketan eta/edo erreskateen kasuan emoten dan erantzunari jagokonez. Interes horretan, jakina, Bizkaiko Foru Aldundiak zure taldeagaz bat egiten dau bete-betean. Halanda ze, interes komuna daukagu: segurtasuna eta larrialdiei erantzutea, eta arlo horretan emoten dan zerbitzu publikoa ahalik eta onena izan daitela.

Dakizunez, Euskadiko herri-administrazioek personakan, ondasunetan edo ondare kolektiboan eragina dabene edo izan leikien larrialdiak prebeniduteko eta kudeatzeko egiten dabezan jarduketan antolamendua eta koordinazioa Euskadiko Larrialdiak Kudeatzeko Legearen Testu Bategina onartzen dauen Legegintzako Dekretuan jasotakoan oinarritzen dira.

Kasu honetan, horixe da gure esparru arautzailea. Zuk Estaduko araudi batzuk aitatu dozuz, baina guk esparru propioa daukagu, eta esparru horrek kokatzen dau gure jarduna. Kasu honetan, legearen beraren terminologian “lazeria ez diran larrialdiak” deitzen diranak be aitatu dozuz. Horreei buruz irakurten deusuet 37.2 artikulua ezarten dauena, argi eta garbi dinoana: “Eusko Jaurlaritzan segurtasun publikoaren arloko eskumena duen sailari dagokio lankidetzeta eta koordinazio egokia ziurtatzea kapitulu honetan jasotako larrialdietan esku hartzen duten zerbitzuen artean. Lankidetzeta eta koordinazio hori funtsean Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren bidez gauzatzen da, oinarritzko tresna gisa taktika operatiboak erabiliz, baina betiere kalterik egin gabe administrazio bakoitzak bere zerbitzu propioen barne-koordinaziorako daukan zentroei”.

Halanda ze, argi dago horrelango larrialdiei, mendi-inguruetako bilaketei edo erreskateei emoten jaken erantzuna, jagokozan taktika operatiboetan jasoten diran baliabideen aktibazioan oinarritzen dana. Kasu horretan, zuk sano ondo adierazo dozun lez, taktika operatiboak M1, M2 eta Koba dira. Hiruretan jasoten da Mendien Foru Zerbitzuaren aktibazioa fase geroratuan egiten dala, eta itaunean be aitatur dator. Zer esan gura dau? Zer esan gura dau fase geroratuan? Bada, besteak beste, esan gura dau Eusko Jaurlaritzako Larrialdietan Esku Hartzeko Zerbitzuko teknikariak eskatuta mobilizetan dirala baliabideak (BZ izenez ezagutzen dira), eta, aldi berean, BZ horreek era automatikoan aktibetan dirala kasu horretan. Persona horreek printzipio batzuetan oinarritutako balorazioa egiten dabenean (berehalakotasuna, hurrentasuna, bitartekoaren eskuragarritasuna, profesionalizazioa, espezializazioa, etab.), kasu horretan Mendien Zerbitzua aktibetan da, larrialdiak kudeatzeko sekuentziari erabat jarraituz, eta orduan Bizkaiko Foru Aldundiak, bere zentro koordinatzailearen bidez (Bizkaia Prest), aktibatu egiten dauz eskura daukazan baliabideak, beti be 112tik eskatzen badira, taktika operatiboak argi eta garbi ezarten dauenaren arabera. Kasu horretan, esan dodan lez, lazeria diran larrialdiez ari gara beti. Halanda ze, eskatzen badira eta erabilgarri badagoz, Bizkaia Prest Zentroak aktibatu egingo leukez, lurralde barruan kudeatzen doguzan baliabideen zentro koordinatzailea dan ezker, hau da, Mendien eta Itzaltze Zerbitzuen koordinatzailea.

Baina zera adierazo gura deusut: aktibetearen edo ez aktibetearen erabagia, oster, ez dago Bizkaia Prest zentroaren ezta Foru Aldundiaren esku be. Eta Bizkaia Prest dalakoak aktibetako eta kasuan kasuko larrialdi batera bialtzeko erabagia hartuko baleu Segurtasun Sailaren menpeko zerbitzuak alde aurretik aktibatu barik, indarreko araudiak larrialdien kudeaketan esku hartzen dauen administrazio bakoitxari (hau da, administrazio autonomikoa eta foru-administrazioa, dakizun lez) esleitzen deusazan zereginak ez lirateke beteko, eta, gainera, taktika operatiboan bertan ezarritakoa be ez litzateke beteko.

Zure galderan dinozu zelaz azaltzen eta baloretan dauen Bizkaiko Foru

Aldundiak Baso Zerbitzua inoiz ez mobilizatea. Lehenengo eta behin, zehetasun bat. Ez dakit egia dan ez dirana inoiz mobilizetan, erabat, edo hori zein denpora-tarteri jagokon.

Bigarrenik, behin taktika operatibo zehatz horreetan esku hartzeko sekuentzia azalduta, uste dot argi geratzen dala Aldundiak zehatz-mehatz beteten dauena taktika horreetan eta esleitu jakozan eginkizunetan ezarritakoa, aplikau behar dogun Legearen arabera.

Halanda ze, Segurtasun Saileko Esku-hartze Zerbitzuko teknikarien lanari buruzko balorazioa eskatzen deustazu, kasu honetan, Eusko Jaurlaritzakoa, horreek dira-eta mobilizetan dabenak, aktibau beharreko baliabideen tekleari emoten deutsienak. Kasu honetan, fase geroratuan, aitatu deusudazan printzipioetan oinarrituta.

Hau da, larrialdietan adituak diran personen lana baloretako eskatzen deustazu, gaiari buruz daben ezagutzea eta euren eten bako kudeaketeak emoten deusent esperientzia kontuan hartuta, erabagiak ezagutza tekniko horreetan oinarrituta hartzen dabezan personak.

Ulertuko dozunez, nire aldetik ausardia litzateke teknikari adituen lana baloretea eta, gainera, Mendien Foru Zerbitzua ez ezik horrelango larrialdietan esku hartu behar daben agentziak, erakundeak edo sailak be kontuan hartzen dira, bai fase automatikoan, bai fase geroratuan be.

Azken horreen artean, geroratuan diranak dinot, honakoak be egongo ziran: Ertzaintzearen Zaintza eta Erreskate Unidatea, mendiko, urpekaritzako eta helikopteroetako atalak, Gurutze Gorria, Dya, udaltzaingoa, boluntario-taldeak, suhiltzaileak, txakurren bidezko salbamentu-taldeak, Osakidetza, etab.

Ikusi zeinkenez, baliabide asko aktibau leitekez fase geroratuan horrelango larrialdietan, eta horreetako bakotxa ezarten diran gorabeheren arabera erabilten da, eta beti be aitatu deusudazan printzipioetan oinarrituta.

Aktibau ez izanaren errazoiei buruz berba egitea, hau da, Mendi Zerbitzua zergaitik ez dan aktibetan, ausartzea litzateke, baina beharbada errazoa izan leiteke esleituta dabezan zereginak ez izatea eurenak bakar-bakarrik, ezpada beste agentzia edo zerbitzu batzuek be izatea zeregin horreek.

Esan gura dot, kasu honetan, Mendi Zerbitzuak esleituta daukazan zereginak alde zurretik taktika operatiboetan finkatuta dagozan eta tasauta dagozan zereginak dirala. Hain zuzen be, honako honeek dira: sarbideen definizinoan esku hartzea, laguntza logistikoa emotea eta laguntza teknikoak emotea. Beti be, bilaketa bat egiten danean edo mendiko bilaketa edo erreskate bat aktibetan danean.

Ataza horreek egitea ez dago Mendi Zerbitzuaren esku bakar-bakarrik, esan dodan lez. Izan be, beste zerbitzu, erakunde edo sail batzuek emon leikiez, aitutatuko taktiketan jasoten dan moduan. Berbarako, adibide bat jartearren, lehenengoari jagokonez, sarbideen definizinoan, Ertzaintzeagaz partekatzen dabe. Bigarrena be, laguntza logistikoarena, Ertzaintzeagaz partekatzen dabe, suhiltzaileakaz, Gurutze Gorriagaz, Dyagaz, udaltzaingoagaz... Eta hirugarrena be, laguntza teknikoarena, suhiltzaileakaz eta udaltzaingoagaz partekatzen dabe.

Halanda ze, esan deusudan moduan, erakunde horreek emon leikiezan baliabideak alde zurretik teknikariak egindako inguruabarren balorazioaren arabera aktibau eta mobilizauko dira, eta beti be aitutatuko printzipioak kontuan hartuta. Behin larrialdia gertatuta, helburua beti da bat, beti da helburu bera, hau da, ondorioak eta

arriskuak minimizatea, eta ezin da beste era batera izan. Horregaitik, baten batek pentsau al izango leuke larrialdiko profesionalek beharrezkoak diran baliabideak ez dabezala aktibauko eta mobilizauko erabilgarri egon ezker? Erantzuna, jakina, ezezkoa da. Baliabide horreek badagoz, behar badira eta erabilgarri egon ezker, aktibau eta mobilizau egiten dira, larrialdi horreetan eta guztietan, Mendi Zerbitzua badago edo besteren bat, une bakotxean beharrezkotzat jotzen dana, eta beti ahal dan eta segurtasun-zerbitzurik onena emoteko helburuagaz, barriro dinot.

Gaiaren hariari jarraituz, eskatzen deustazuzan balorazinoen oinarria da mendietako, landa-eremuetako edo urien kanpoaldeko erreskateetako bilaketetan Mendien Foru Zerbitzua gitxi edo ezer be ez dala aktibetan, eta hori Bizkaiko Larrialdietako Euskal Sistemearen hutsune bat, akats larria dala dinozu zure itaunean. Oinarri hori, hau da, hutsune bat dala, ez dago egiaztata, gaur egun ez dagoalako inongo ebidentziarik foru-zerbitzu horrek esku hartu ezker erantzunaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetuko liratekela probetako. Ez dau inork zalantzan jarten Aldundiko Mendi Sistema osotzen daben personen profesionaltasuna eta lan ona. Ez gara horretaz ari, baina ezin da esan zerbitzu horretako personek esku hartu ezker larrialdi horreei erantzuteko denporak hobetuko liratekenik. Ez dago azterlanik, ez dago hori egiaztetan dauen ebidentziarik. Nik, egia esan, ezin dot baieztu, ezta guzurtau be, esan deusudan lez, ez dago-eta zerbitzu horren esku-hartzearen eta denpora-murrizketearen arteko korrelazioa ezarten dauen inongo azterlanik.

Aktibetan ez bada, larrialdia koordinetan dauen aitatutako adituak egiten dauen ebaluazinoan oinarrituta, ez dauelako komenigarritzat eta beharrezkotzat jotzen izango dala dinost zentzunak. Uste dot ez dala nire betebeharra bere izenean erantzutea, ez eta, laburbilduz, zeozer baloretea be judizio-elementurik ez daukanean. Izan be, ebidentzia eztabaidaezinik be ez daukat zuk halakotzat jotzen dozun hori benetan anomalia bat ete dan balorateko.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Etxanobe Landajueta. En el turno de réplicas, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Lehenengo eta behin, pozten nau gure interesagaz bat egiteak. Hemen gagoz, behingoz, hartu beharreko neurriak be partekatzen doguzan ikusteko.

Hara, areto honetan gauza asko entzun deusaguz Foru Gobernuari. Malabarismo politikoaren saio apartak ikusi doguz. Ukatu egin deuskuzue Aldi Baterako Laneko Enpresak kontratetan zenduezala eta benetan kontratetan ari zinien. Ezetz esan deutsezue foru-arauden erreformei, behar ez ei ziralako, eta gero, bi hilebete geroago aurkeztu egin dozuez. Bardintasun-proposamenak aurkeztu doguz, nerabeentzat eta jokabide-arazoak dabezanentzat..., baztertu egin dozuez, eta, gero zeuok atera dozuez aurrera... Malabarismo politiko ugari ikusi doguz hemen.

Eta gaur benetan be zeregin gatxa daukazu hemen. Hori onartu egiten deusut. Funtsean, zergaitik azaldu behar dozu. Horixe da, funtsean, galderea, zergaitik 3 egun arteko persona baten bilaketetan, pentsau eizu zer dan mendian hiru egun galduta egotea, eta borondate oneko boluntarioak mobilizetara heltzen diranean, zergaitik ez dan beharrezkoa mobilizatea inguru horreetan behar egiten daben eta inguru horreek ezagutzen

dabean profesionalak. Galdera horri erantzun behar deusazu.

Baina nik uste dot gai honetan ez dala malabarismorik egin behar. Sentiduten dot. Gogorarazo gura deusut segurtasun-zerbitzu bati buruz ari garala. Persona askoren osotasuna edo bizitzea be segurtasun-zerbitzu horren mende dagoz askotan, zoritxarrez. Ez dot gura hori ahaztu daizun.

Zera galdetu dozu: baten batek pentsau leike profesional horreen esku-hartzea beharrezkoa bada ez dirala mobilizauko? Eta zuk ezetz esan dozu. Hara, nik Larrialdi Zentroko bilera-agiriak aitatu dodaz eta bertan azaltzen da, adibidez, 2019an, Gorbeian; bi egun eta erdiko bilaketea. Aldi berean, 25 boluntario mobilizau ziran, baina ez zan basozainik eskatu. Ezta Gorbeiaiko parke naturalean bertan behar egiten dabenak be, eta ondotxo ezagutu behar dabe ingurua, gero! Bi egun eta erdiko bilaketea.

2020an, Sopuertan. Bilaketa-egun bat. Boluntarioek eta udaltzainek parte hartu eben, eta horreek be mobilizazino geroratuan dagoz. Ez eben parte hartu basozainek, ez jaken abisau. Azkenean, txirrindulari batzuek aurkitu eben.

2021ean, 82 urteko persona bat. Hiru eguneko bilaketea. Boluntario askok parte hartu eben, Gurutze Gorriak, Ertzaintzako urpekariak, txakur-unidadeak..., dana mobilizau zan, Basozaintza Zerbitzua izan ezik. Suhiltzaileak be mobilizau ziran. Zergaitik, Eusko Jaurlaritzako Larrialdi Zerbitzuak ez baeban eskatu? Zergaitik? Bilaketa-gunea Suhiltzaileen Parkearen aurrean egoalako, eta, beraz, logikoa da abisua heldu baizen laster mobilizetea. Baina hiru egunetan ez zan basozain bat be mobilizau.

Benetan sinistuarazo gura deuskuzue Gorbeiaiko basozainek ez daukiela emoteko ezer ia hiru egun irauten dauen bilaketa baten? Zure ustez, logikoa al da mendizale batek Urkiola mendian hankea apurtu ezkerone horretan basozainik ba ete dagoan ez egiazteatea? Izan be, horixe da gertatzen ari dana. Kontua ez da bakarrik ez jakela abisetan eta Larrialdietako Koordinatzailearen erispidean ezkutau leitekezala. Izan be, ez da inoiz basozainen mobilizazinoa emoten. Eta arabere okerragoa dana, ez da inoiz egiaztetan inguruan basozainik ete dagoan be.

Bizkaia Prest zerbitzura Gorbeian, Urkiolan edo beste edozein lekutan larrialdi-abisu bat sartzen bada, inguruan basozainik dagoan egiaztau behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren larrialdi-zerbitzu bat dalako. Eta hori ez dago SOS Deiak-en esku. Hori Bizkaia Prest zentroaren esku dago, berak daki-eta une bakotxean eta minutu bakotxean basozainak non dagozan, eta hori ez egitea, zoritxarrez, larrialdi-protokoloen aurkako ardurabakokeria da.

Begira. 2020an, Gorbeian, bilera-agirien arabera: “suhiltzaileak bideratzen dira”. Larrialdietako koordinatzaileak (BZ) honakoa erantzuten dau: “Ez daitezala suhiltzaileak atera”. Eta Bizkaia Prest zerbitzuak: “mobilizau dira daborduko baliabideak”.

Zeanurin, 2020an, 09:20an: “Momentuz, ez daitezala suhiltzaileak urten”. 11:00etan: “Bizkaiko suhiltzaileak itxaroten dagoz hondino”. Bi aldiz galdetzen dabe. Azkenean, 14:00etan mobilizau ebezan.

Zornotzan, 2019an. “Suhiltzailerik behar al da?”. Bi aldiz galdetzen da barrero, eta azkenean mobilizau egin ziran.

Bizkaia Prest zentroak ez dauka inongo parte-hartzerik edo parte-hartze aktiborik larrialdi bakotxerako baliabideak mobilizetako edo non dagozan ikusteko. Eta hori, esan deusudan lez, ardurabakokeria da.

Begira, Rementeria jaunak, Bizkaia Prest aurkezterakoan zera inoan: “Honegaz koordinatzaileak, eraginkoragoak eta azkarragoak izango gara personeren zerbitzurako arretan”. Zoritxarrez, hori guzurrak zara. Ez dogu esango zerbitzu txarra emoten ari danik, baina hobetu leitekeen zerbitzu bat emoten ari gara, eta hori badakizue. Eta Bizkaia Prest zerbitzuaren bilera-agiriekin horixe erakusten dabe, eta hemen eskumenak argi dagoz. Ez da Eusko Jaurlaritzaren kontua, bien arteko kontua baino, zure sailarena be bai.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. En el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Etxanobe Landajueta, tiene usted la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Ez dot ondo azaldu, antza, lehenengo agerraldian. Argi geratu daitela gura dot: beharrezkoa danean eta eskatzen danean Aldundia eta Bizkaia Prest zentroa prest dagoz, hoba ez, koordinetan dabezan baliabideak aktibetako, kasu honetan, Mendien Zerbitzua eta suhiltzaileak. Apliketan dogun lege-esparru bat dago eta taktika operatibo batzuk, eta horreen arabera zuzentzen gara. Taktika operatibo horrekin barriro ikustean beste jarduteko modu bat ebatziko balitz, onartuko geunke. Errespetatu behar dogun eskumen-esparrua eta esleitutako eskumenak dagoz, eta hori da, jakina, Aldundi honekin aintzat hartzen dauena. Horixe da apur bat.

Zure eretxia emoten ari zara, eta uste dot eretxi larriak dirala, zalantzan jarten ari zara-eta 112 telefonoak egiten dauen lana eta egiten dauzan jarduketak; kasu honetan, Bizkaia Prest zentroak egiten dauzanak. Izan be, kasu honetan esku hartzen dauen erakunde bakotzak esleituta daukazan araudia eta zereginak modu ezegokian interpretetan dozuz.

Nik, egia esateko, mezu bat helduarazo gura dot, hau da, larrialdia sistema bat daukagula, eta, jakina, Bizkaiko Foru Aldundia konprometiduta dagoala eta beti prest dagoala bere zerbitzuen kalidadea hobetzeko, eta, esan deusudan lez, taktika operatibo horrekin barriro ikusten doguzanean zerbitzu hori hobetzeko gairen bat egon leitekela uste bada, egin egingo dogu. Baina, tira, indarrean dagoan araudian dagoana eta esleitutako betebeharrak argi eta garbi errespetetan doguzala ezarri gura izan dot. Eta, jakina, ez doguz betebeharrak horrekin gaitutuko. Halanda ze, erakunde honekin ez dau erantzun behar zergaitik ez diran aktibetan. Guk, jakina, eskura daukaguz baliabide horrekin. Eta eskuragarri badagoz eta aktibetako eskatzen bada, aktibatu egingo dira, baina ez gara nor baliabide horrekin aktibetako, aldeztu aurretik eskatu ezik. Halanda ze, ezin deusut erantzun zergaitik ez diran kasu horrekin aktibetan.

Horixe da apur bat; horixe da jakinarazo gura izan deusudan mezua. Agentzia asko dagozala, eta zerbitzu asko mobilizatzen geroratu aktibatu leitekezanak. Ez da Mendien Zerbitzua bakarrik, eta aktibetako ahalmena Segurtasun Sailarena da.

Ez gatoz bat, jakina, itauna egin dauen taldeak atera dauen ondorioagaz, hau da, kasu honetan, Mendi Zerbitzua ez aktibetako zerbitzuak emotean hutsunea ekarri dauela ateraten dauen ondorioagaz, ez daukagu-eta gertaera hori baloretako judizio-elementurik. Eta, jakina, lehenengo agerraldian aitatu deusudan moduan, Xabier Benito, ez eizu zalantzarik izan, inork ez dagiala zalantzarik jarri larrialdien eremuan lan egiten dauen edozeinek, hau da, 112 telefonoan dagozan persona arduratsu horrekin

edozeinek baliabideak eskuragarri euki ezker eta kasu bakotxean arreta egokia emoteko aktibau behar dirala uste badabe, aktibau egingo dabez-eta.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Etxanobe Landajuela.

El cuarto punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0000275](#))

Autor: Isuskiza Arana, Zigor (EHB)

Asunto: Salida del Tour de Francia 2023.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0000275](#))

Expediente: ([11/B/18/0003173](#))

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak azertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0000275SE](#))

Egilea: Isuskiza Arana, Zigor (EHB)

Gaia: 2023ko Frantziako Tourraren irteera

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000275SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0003173](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Isuskiza Arana, tiene usted la palabra.

El Sr. **ISUSKIZA ARANA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos/as.

Bueno, hoy hablaremos acerca del Tour, acerca de esta carrera.

Tras diversos contactos entre las instituciones vascas y la organización del Tour de Francia, el 26 de marzo de 2021 la sociedad propietaria del Tour de Francia, AMAURY SPORT ORGANISATION (ASO), hizo público a las instituciones vascas que designaba a Euskadi-Pays Basque como equipo anfitrión de la Gran Salida conocida en el Tour de Francia como "Grand Depart" en la edición del año 2023, del 1 al 3 de julio de 2023.

En el convenio institucional suscrito se recoge que el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, en el ejercicio de sus competencias y dentro de sus áreas de actuación, entre las que se encuentra el impulso y desarrollo de todas las actividades relacionadas con la promoción de la imagen de Bizkaia como territorio de oportunidad para la captación de inversiones, talento, visitantes y eventos a nivel internacional, y la promoción de la participación de Bizkaia en redes internacionales de interés prioritario, considera como reto principal especialmente interesante y en el marco de la estrategia Bizkaia Egiten el fomento de una mayor y mejor actividad económica y de empleo, el apoyo a la captación de eventos internacionales

relevantes, así como el impulso de los mismos, con el fin de reforzar la apuesta por hacer de Bizkaia un territorio más conocido y conectado internacionalmente.

Los firmantes acordaron que BILBAO EKINTZA, del Ayuntamiento de Bilbao, sea la entidad instrumental para la firma y ejecución del contrato con los organizadores del Tour y cualquier otro documento que su desarrollo requiera.

Por otro lado, las instituciones vascas se comprometen a aportar 12 millones de euros para el desarrollo de este ejercicio. La Diputación Foral de Bizkaia destinará 2.420.000 euros en los términos que se especifiquen en la adenda del convenio.

En el convenio también se hace una pequeña mención a la promoción del deporte. Esto lo desarrollaré luego más.

A la hora de leer los objetivos del convenio firmado para traer el Tour al País Vasco, se pone de manifiesto que no se tienen en cuenta cuestiones que consideramos importantes. Por un lado, los relacionados con nuestro carácter: identidad vasca, cultura y euskera. Por otro lado, creemos que también deberíamos poner el foco de atención en la igualdad, la sostenibilidad y las condiciones laborales del personal participante.

Solo se pretenden objetivos mercantilistas, al menos son esos los que se recogen en el convenio, y creemos que también habría que tener en cuenta los elementos anteriormente mencionados.

Todas las iniciativas que presentamos en la anterior legislatura no pretendían denunciar este tipo de espectáculos, sino que eran para hacer propuestas de mejora en el caso de que estos se desarrollaran. En ningún momento nos mostramos violentos. Incluso llegamos a un consenso en una iniciativa presentada.

Vista la lista de espectáculos que se preveían en Bizkaia (MTV, la Vuelta, premios de cocineros/as, campeonatos de rugby...), presentamos en las Juntas Generales una serie de iniciativas teniendo en cuenta los elementos anteriormente mencionados. Presentamos dos interpelaciones y dos mociones.

En relación con la interpelación de hoy, el convenio recoge que las partes, es decir, las partes que firman el convenio manifiestan su voluntad de constituir un Comité Organizador. Es decir, el Comité Organizador estará compuesto exclusivamente por representantes designados por las entidades incluidas en el presente Convenio y por la entidad municipal.

El Comité Organizador estará facultado para adoptar los acuerdos necesarios para tal fin. Asimismo, la Comisión realizará el seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del Convenio y de los compromisos asumidos por los firmantes. Además, tras su presentación por la entidad municipal, analizará la justificación de los ingresos y gastos asociados al presente convenio de colaboración y demás requisitos aprobados por las partes.

El Director o Directora de dicha Comisión será designado/a por el Gobierno Vasco. Nos gustaría saber quién es el o la representante de la Diputación Foral de Bizkaia y aprovecho esta ocasión para preguntarlo.

Durante los tres primeros meses de los ejercicios 2022 y 2023 los firmantes del convenio presentarán al Comité Organizador la documentación justificativa del cumplimiento de los compromisos asumidos por cada uno de ellos.

Al estar dentro de esos tres primeros meses del año, puede ser una buena oportunidad para presentar las iniciativas que nos interesan en las instituciones. Es decir, para incluir, por ejemplo, las que hemos nombrado antes.

Con esta interpelación queremos conocer si la Diputación va a incorporar entre sus compromisos los aspectos anteriormente mencionados. Es decir, entre los compromisos que le presentará al Comité Organizador.

Por todo ello, formulamos la siguiente interpelación al Diputado General, Unai Rementeria Maiz:

-Primero. ¿Qué compromisos presentará la Diputación Foral de Bizkaia al Comité Organizador? Es decir, además de los compromisos económicos, ¿qué otros compromisos formulará, o expondrá, o presentará al Comité Organizador?

-En segundo lugar. ¿Estarán entre esos compromisos acciones/actuaciones relacionadas con nuestra naturaleza (identidad vasca, cultura y euskera)?

-Y en tercer lugar, y para finalizar. ¿Se incluirán entre esos compromisos medidas para garantizar la igualdad de género, la sostenibilidad y las condiciones laborales del personal participante?

Por tanto, estas son las preguntas que formulamos o hacemos, y esperaremos la respuesta para que respondamos en nuestra segunda intervención.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Isuskiza Arana. En el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Basurko Urkiri, tiene usted la palabra.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, y buenos días a todos/as también de mi parte.

Tal y como usted ha indicado, señor Isuskiza, durante los tres primeros meses de los ejercicios 2022 y 2023, los firmantes del Convenio de Colaboración para la organización del evento de la Salida General del Tour de Francia 2023 presentarán al Comité Organizador la documentación justificativa de los compromisos asumidos. Es decir, los compromisos adquiridos y los recogidos en el convenio ya firmado. No es plazo para presentar nuevos compromisos.

Tal y como informé en la Comisión de Economía de las Juntas Generales el pasado 18 de octubre, la Diputación Foral de Bizkaia es miembro del Comité Organizador, al que corresponde las funciones de la Comisión de Seguimiento del Convenio de Colaboración, así como el seguimiento, vigilancia y control del mismo y de los compromisos adquiridos por los firmantes. El miembro de esta comisión es el director general de Turismo y Competitividad Territorial del Departamento de Promoción Económica.

La designación de Euskadi-Pays Basque como equipo anfitrión de la salida principal del Tour de Francia 2023 es un gran acontecimiento para toda Euskadi y para Bizkaia. Es la segunda vez que el Tour sale del Estado, y lo hace en Euskadi. La

última vez fue en 1992, en San Sebastián, año en el que Miguel Indurain se proclamó campeón en París; y en 2023 saldrá de Bizkaia, de Bilbao.

El regreso del Tour de Francia a Euskadi era un deseo desde hace tiempo y las instituciones vascas, el Gobierno Vasco, las diputaciones y los ayuntamientos de las tres capitales han trabajado intensamente para lograrlo. Y ese deseo se hará realidad porque tiene ya una fecha fijada. El Grand Depart se celebrará en Bilbao el 1 de julio de 2023, fecha en la que el Tour cumple 120 años.

Dakizenez, datorren 2023ko garagarrilaren 1ean Tourraren Urteera Handia ospatuko da Bilbon, Guggenheimetik abiauko dan 185 kilometroko etapea. Laukiz, Sopela, Gaztelugatxeko Doniene, Gernika, Ibarrangelu, Zabaleta, Morga gainak, Vivero eta Pike igaroko dauz Bilbora itzultzeko. Bigarrenak, 210 kilometrokoak, Gasteiz eta Donostia lotuko dauz eta Legutio, Udana eta Aztiria gainak, Zaldibia, Alkiza gaina, Hernani, Gurutze gaina eta Jaizkibel igaroko dauz Gipuzkoako uriburura heldu aurretik. Eta hirugarrena, Zornotza eta Baiona artekoa, Euskal Kostalde osotik igaroko da Frantzian sartu aurretik.

Halanda ze, hiru egun horreetan Euskadi, bertako uriburuak eta herriak Frantziako Tourraren protagonistak izango dira, munduko lasterketarik onena lez ezagutzen dana.

Albiste bikaina da Bizkaiarentzat eta Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Sailarentzat; izan be, haren jarduera-arloen artean dago Bizkaia nazinoartean sustatzeagaz zerikusia daben jarduera guztiak bultzatzea eta garatzea. Albiste bikaina da Euskadi osorako, urtez urte beste eskualde eta herrialde batzuk lehiatzen diralako, eta eragin sozial, ekonomiko eta mediatiko oso positiboa izango daudelako lurraldean, ospatu aurretik, bitartean eta ondoren. Aurreikuspenen arabera, 190 herrialdetan izango dau eragina, eta 3.500 milioi ikusle potentzialek telebistaz ikusiko dabe.

Eta azpimarratu behar dot, gainera, orain arte, sintonia handikoak izan dirala euskal erakundeen eta Frantziako Tourra antolatzen dauen erakundearen arteko hartu-emonak, bai profesionaltasunagaitik, bai euskal nortasuna, gure kultura eta gure hizkuntza errespetau eta ulertzeagaitik. Izan be, hasieratik onartu dabe hizkuntza koofiziala dala Euskadin.

Horrelan ikusi zan joan dan urtarrilean 2023ko Frantziako Tourraren hasierako hiru etapa horreen ibilbidea aurkeztu zanean. Proiektuan parte hartu eben euskal erakunde guztiak parte hartu eben, Christian Prudhomme Tourreko zuzendariagaz batera. Ekitaldi horretan, euskerea, gaztelania eta frantsesa erabili ziran. Urtarrilean aurkeztutako Press Book-en edukin guztia euskeraz, gaztelaniaz eta frantsesez egoan, izenen eta mapen toponimia be bai. Tourraren antolatzaileek hasieratik bideratu dabe horrelan, jakitun dagoz-eta euskerea hizkuntza ofiziala dana Euskadin. Era berean, Euskadiko ereserki ofiziala erabiltea aurreikusten da, eta aurkezleek, datorren urteko bagilaren 29an Bilbon egingo dan Taldeen Aurkezpen Ofizialeko zein etapetako aurkezleek, Euskadiko bi hizkuntza ofizialak jakingo dabez.

Es más. Como teníamos claro, ya hay referencias a Euskadi, a su autonomía y a competencias exclusivas (en seguridad y televisión, por ejemplo) y a la gastronomía vasca como parte fundamental de nuestra cultura.

En cuanto a la sostenibilidad, hay que destacar que el Tour de Francia comenzó hace casi 10 años a trabajar por una organización cada vez más eco-responsable y que desde entonces ha mantenido ese compromiso. En 2017 fue uno de los miembros fundadores de la Carta de Compromisos Eco-responsables bajo el auspicio del Ministerio de Deportes francés y WWF (World Wildlife Fund for Nature). Es decir, los 17 Objetivos

del Desarrollo Sostenible de la ONU para adaptarse al Deporte.

Konpromiso eko-arduratsuen gutun horrek urtero gizarte eta ingurumen arloko helburu ikusgarriak lortzera behartzen dau Frantziako Tourra. Horrelan, Frantziako Tourrak, urte batzuri hona, Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren politikea garatzen dau, honako helburuakaz:

-Alde batetik, *Etorkizuna bizikletaz* programeagaz eragin positiboa sortzea, eguneroko bizitzan bizikletearen praktikea sustatzeko 4 totem-eragiketatan oinarritzen dana.

-Eta baita Frantziako Tourraren aztarna ekologikoa murrizteko eta Tourraren erradiazioari esker inklusioa sustatzeko be, programa zehatz baten bidez: “Nire txandea da. Egin egiten dot”.

Por lo tanto, asume los objetivos relacionados con la Sostenibilidad y, entre ellos, los relacionados con la igualdad de género y las condiciones laborales del colectivo trabajador.

Y el seguimiento de todo ello se realizará por parte de la Comisión de Seguimiento que se menciona en el Convenio, recordando, además, que en el Convenio se indica que también a nosotros/as, a las instituciones, nos corresponde ayudar a la organización ASO en la política del desarrollo sostenible, y en concreto, también en la promoción del uso de la bicicleta.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Basurko Urkiri. En el turno de réplicas, señor Isuskiza Arana, tiene usted la palabra.

El Sr. **ISUSKIZA ARANA** jaunak: Muchas gracias por sus respuestas, señora Basurko.

A decir verdad, ha dado ciertas explicaciones. Lo que ocurre es que en el Convenio no se menciona nada de eso. Y eso no está recogido en ningún sitio. Por lo tanto, es normal que nos surjan dudas, ¿no? Porque, claro, usted ha dicho ahora que no es el momento de realizar propuestas al Comité Organizador, que no estamos en ese plazo. Entonces, ¿cuándo es el plazo?

Pues, en teoría, cuando se firmó el propio convenio ¿no? Y todos esos aspectos ¿no se han recogido de ningún modo? ¿En ningún sitio? Pues, usted ha explicado que el Tour tiene el certificado o ese compromiso de quien participa, en cuanto a la sostenibilidad, ¿verdad? La cuestión es que cuando leímos el convenio, pues, creíamos que se ponían sobre la mesa las mismas dudas que surgieron en la anterior Legislatura. Y, además, tal y como he dicho en el primer turno, en la anterior Legislatura llegamos a una transaccional y, además, pedíamos a la Diputación, por una parte:

-Gure lurraldean egiten diran ekitaldietan euskal nortasuna eta kulturea sustatzen jarraitu dagiala.

-Bitarteko egokiak ezarri daizala euskereak jasoten dauen erabilerearen eta tratamenduaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, bai eta gure sortzaileen parte-hartzea

eta presentzia eta gure euskal kultureari eta Bizkaiari buruz eta gure lurraldean nazinoartean eragina daben ekitaldiak antolatzen dabezan beste erakunde edo eragile batzuei buruz emoten daben informazinoa be.

Eta, gainera:

-Lortutako emaitzak ebaluetea eta euskerearen, gure kulturearen eta nortasunaren benetako presentzia bermatzeko beharrezkoak diran neurri zuzentzaileak hartu daizala.

Creemos que ese consenso que alcanzamos en abril de 2018 no se ha cumplido del todo, tanto en lo que se refiere al euskera como a los ámbitos de nuestra identidad. Y disponemos de ejemplos, por desgracia. A veces se dicen palabras bonitas, pero luego la realidad, a veces, no siempre, pero a veces, dice otra cosa.

Y por eso queremos subrayar el riesgo de asimilación que pueden suponer este tipo de eventos. Y eso le preocupa mucho a EH Bildu. Inevitablemente, tenemos que establecer medidas para evitarlo.

Si nos centramos únicamente en los objetivos económicos, y usted los ha comentado, la repercusión internacional y todo eso, corremos el riesgo de olvidar el resto, ¿no? Y hoy quiero traer aquí un ejemplo significativo.

Como recordarán, en 2020 se jugó la Champions League femenina en San Mamés y Anoeta. Por aquel entonces, como consecuencia de la pandemia, se limitó el aforo y ningún espectador/a asistió a los campos de fútbol, por desgracia. En su lugar, la UEFA instaló unas lonas. Y si recordarán, en esas gradas sí que ponía “Womens Champions League finals 2020 Spain”. Con una Spain grande, con una Spain grande.

Y claro, viendo eso, para nuestra sorpresa, para nuestra sorpresa, y viendo el anterior acuerdo, el acuerdo de 2018, nos sorprendió. Y al ver eso, como Diputación, ¿qué piensan ustedes? Eso es lo que preguntamos, ¿no? Porque en el punto 3 de la moción acordada se recogía que la Diputación realizaría una evaluación. ¿Qué tipo de evaluación han realizado, por ejemplo, de esto?

Por otro lado, también le hemos preguntado si estos compromisos incluirán medidas que garanticen la igualdad de género, la sostenibilidad y las condiciones laborales del personal participante. Los ha mencionado, los ha explicado y, por el momento, nos mantendremos expectantes y le haremos un seguimiento, pero esperemos que haya una estupenda coordinación con Bilbao Ekintza para saber si se están cumpliendo, puesto que es una entidad instrumental, y para hacer un seguimiento también de ello. Por lo tanto, les agradeceríamos que se esforzaran también en eso.

Y para finalizar, una reflexión. A este espectáculo se destinarán 12 millones de euros por parte de las instituciones vascas, y creemos que habría que tener en cuenta el retorno que esto supondría. No solo los beneficios económicos que tendrá, sino también el impacto que tendrá en la promoción de las actividades deportivas, porque además de este tipo de grandes iniciativas, hay que potenciar también nuestras propias carreras. Y, por ejemplo, Zornotza tendrá una salida del Tour, pero la Clásica de Primavera que se celebra todos los años está en peligro. O se dijo de la Emakumeen Bira que también hay que fomentar este tipo de carreras y las de aficionados/as. Si no, puede que dentro de unos años podamos organizar etapas del Tour pero sin ciclistas vascos, por desgracia.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Isuskiza Arana. Y en el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Basurko Urkiri, tiene usted la palabra.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Sí, tal y como usted ha indicado, Bilbao Ekintza es el instrumental que luego firma el contrato con el Tour, y en todos los anexos de ese contrato aparecen recogidas con todo detalle las posibles actividades que mencionamos en todos estos ámbitos, en todos estos ámbitos de los que estamos hablando; todas aparecen ahí.

Ahora aprovecharé para adelantar un poco de información, y, desde luego, la Comisión de Seguimiento hará un seguimiento de todo ello.

Después, bueno, por el momento, tenemos lo que podemos llamar el soporte publicitario, donde al menos está todo en los tres idiomas. Esto es lo que se repartió en la comparecencia. Por el momento al menos han manifestado desde un inicio un compromiso y un respeto enormes hacia nuestro idioma y nuestra cultura, y, bueno, lo están cumpliendo y también se hará un riguroso seguimiento de ello.

Pero, bueno, tal y como estaba diciendo, les adelantaré algo de información en relación a los aspectos que se concretan en el contrato, viendo que es algo que preocupa, como es normal y está bien, se está cumpliendo con los criterios de sostenibilidad, lingüísticos y con otros tantos criterios, ¿vale? Entonces,

Esan dodan lez, Frantziako Tourra hartzean, Erakunde Anfritioiak, guk geuk konpromisoa hartzen dogu ahal dogun guztia egiteko Frantziako Tourrak bere Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikearen esparruan ezarritako ekintzetan laguntzeko. Barriro dinot, Tourrak 120 urteko ibilbidea dauka, eta konpromiso sendoak hartu ditu edizino guztietan iraunkortasun-erispideei jagokenez. Halanda ze, geu be errespetuzkoak eta zorrotzak izan gaitezala eskatzen deuskue eurek be, eta zereginak be jarten deuskuez, ezta?

Beraz, berbabide daukagun guztirako ASO antolatzailearen programeari “Nire txandea da. Egin egiten dot” deitzen deutsie, lehen be aitatu dot, eta honako ekintzak sartzen dauz, eta daborduko hainbat edizinetan implementetan ari da.

Berbarako, garraioaren arloan, eta hemen be ezarriko dabezan ekintzak dira. Berbarako, garraioaren arloan:

- Ibilgailu hibridoaren eta elektrikoaren erabilera ibilgailu ofizialen flotan.
- Frantziako Tourreko familiak energia alternatiboen erabilerearen inguruan sentikortzea.
- Frantziako Tourreko errepidean ibilgailu kopurua murriztea eta jarraitzaileen automobilen erabilera partekatua optimizetea.
- Pilotuak eta motoziklistak eko-arduraz gidatzeko prestetea.
- Jentea sentikortzea bizikletea edo mobikortasun leuna erabilteak dakarzan onurez, etab.

Otros ejemplos que desarrolla ASO en el ámbito de la alimentación responsable:

- 100% productos de temporada y 100% vascos, españoles y franceses en espacios VIP Tour de Francia.

- Envases reciclables o reciclados.

- Retirar todas las copas de champán de plástico de un solo uso en los espacios VIP Tour de Francia.

- y prohibición de las pajitas.

Asimismo, en el 100% de los lugares sensibles protegidos:

- La realización de estudios de impacto en la Red Natura 2000 con una oficina de expertos naturalistas.

- La consulta con agentes de lugares sensibles atravesados. Parques naturales comarcales, etc.

- Gestión y selección de residuos.

- Nombramiento del Coordinador de Residuos, que será el interlocutor de la Entidad Anfitriona.

- Recordar a las familias del Tour de Francia las instrucciones medioambientales, a través de la organización de talleres.

- Concienciar con anterioridad a la carrera a seguidores y al público sobre el medio ambiente.

Baliabideen kontserbazinoari jagokonez, inprimidutako edizinoei jagokonez, esaterako:

- FSC papera erabiltea edizino guztietarako.

- Edizinoen hainbat euskarri desmaterializetea, etab.

Hay un montón de medidas.

Eta horren haritik, esan dodan lez, Erakunde Anfitrioniak ezarritako ekintzak aitatzearren, guri jagoku ingurumen-hondakinen koordinatzaile bat izentetea, eta hori ASOko hartu-emonetarako pertsona eta haren hondakinen koordinatzailea izango litzateke; lurraldean eskumena daben agintarien neurriak hartzea be jagoku, ingurumena errespetetan dala bermatzeko; edukiontziak eta zabor-boltsak eskura jartea Tourrak okupetan dauzan eremuetan; bilketea eta sailkapena; bildutakoari eta sailkatutakoari buruzko informazioa emotea, etab.

Como podrán ver, todas estas acciones y en general los Objetivos de Desarrollo Sostenible están muy presentes en la gestión diaria del Tour de Francia. ASO es una organización experimentada en todo eso y nosotros, en la medida en que somos compañeros de viaje, actuaremos en la misma línea.

También he mencionado la amabilidad y el respeto por la cultura y la

lengua vascas a partir del anuncio que se hizo el primer día y, como he indicado, por lo general, la adhesión con respecto a los Objetivos de Desarrollo Sostenible. La Comisión de Seguimiento hará un seguimiento de todo ello.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Basurko Urkiri.

Y el punto quinto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2022/0000276](#))

Autor: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Asunto: La garantía del derecho al respiro de las personas cuidadoras.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2022/0000276](#))

Expediente: ([11/B/18/0003174](#))

5.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2022/0000276SE](#))

Egilea: De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

Gaia: Zaintzaileek atsedean hartzeko daben eskubidea bermatzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000276SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0003174](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta, y bueno, buenos días a todos/as.

Gaur Murillo Gizarte Ekintzako diputadu jaunari itandu gura deusagu bere sailetik zer neurri abiarazoko dauzan jagole ez-formal guztiek atsedenerako eskubidea bermatuta izan dagien. Eskubide hori, atsedenarena, Elkarrekin Bizkaiaren eretxian, ez da behar dan moduan bermatzen eta, gainera, batez be bi faktoreren ondorioa dala uste dogu.

Faktore horreetako lehenengoa da gitxi-gitxi garatuta dagoan legeria bat daukagula, sano bermatzailea dan arren. Horrek, *de facto*, atsedean hartzeko eskubidea bermatu ahal izateko behar beste baliabide ez izatea dakar.

Eta, bigarrenik, dekretu arautzaileak eskubideak urratzera bideratuago dagozala eskubide horreek bermatzera baino.

Lehenengo eta behin, legeria sano bermatzailea baina gitxi-gitxi garatua daukagula esan deusuegu. Hara, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasunarenak, Autonomia Personal Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dagozan Personak jagoteari buruzkoak, 18.4 artikuluan jasoten dau jagole ez-profesionalei

laguntzeko ekintzak sustatuko dirala, besteak beste, atsedendialdiak hartzeko neurriak. Eta, gainera, 24. eta 25. artikuluek atsedendialdi horreei erantzuteko zerbitzuak jasoten dabez, hain zuzen be. Eta horreen artean eguneko zentroak, gaueko zentroak eta egoitza-arretako zerbitzuak ezarten dauz. Eta beste aukera batzuk emoten dauzan arren, horreetan bakarrik jarriko dot arretea, horreek dira-eta Aldundiari jagokozanak eta gaur aztertzea jagokuzanak. Laburtzearen, Mendekotasun Legeak honako hau ezarten dau: “jagole ez-profesionalen atsedena bermatzen da”, eta, horrezaz gain, eguneko zentroak, gaueko zentroak eta egoitza-arretako zerbitzuak izango doguzala adierazoten dau.

Bigarrenik, zer dino Gizarte Zerbitzuen Euskal Legeak, 12/2008 Legeak? Izan be, jagoleak gizarte-zerbitzuen erabiltzaile dirala autortzeaz gain (gero erregelamentu bidez zehaztuko dan lez), zazpigarren Xedapen Gehigarria sano interesgarria da, eta honako hau dino: “gizarte-larrialdietarako plaza-erreserbeari jagokonez”; eta honakoa ezarten dau: “Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, beren eskumeneko zerbitzuetan, plaza-erreserba bat bermatu beharko dute, gizarte-larrialdietako zerbitzuetatik eta laguntza-zerbitzuetatik etortzen diren eskariei erantzuteko”. Hau da, Euskal Legeak bere eskumeneko zerbitzuetan atsedenerako plazak gorde egin behar dirala gaineratzen dau.

Ondo. Zer dino prestazino eta eskubide horreek arautzen dauzan Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemearen Prestazino eta Zerbitzuen Zorroari buruzko 185/2016 Dekretuak? Atsedeen-zerbitzua I. Eranskinean arautu eta garatzen dau, eta zera dino, desgaitasuna edo gaixotasun mental kronikoa daben mendetasun-egoeran dagozan eta normalean euren familiaren laguntzea daben personei aldi baterako egonaldiak eskaintzeko zuzenduta dagoala, eguneko zentroetan eta gaueko zentroetan, hain zuzen be, egoitza-zentroetan.

Ondo. Eta zergaitik dinogu Legeria hori bermatzailea dala, baina sano gitxi garatuta dagoala? Ez diralako behar dan moduan garatu hori bermatu leikien tresnak, neurri batzuk ezarri badira be, eta hori ezin dogu ukatu, eta Aldundiak berak Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren ebaluazinarako emon dauzan datuetara joatea baino ez dago.

Autonomia mugatzeko gaueko zentroak: 0. Zerbitzu hori ez da garatu.

Desgaitasuna edo gaixotasun mentala daben edadekoentzako eguneko zentroak. Azken 7 urteetan hain plaza gitxi sortu diran ezker, gizarte-estaldureak behera egin dau. Gora egin beharrean, jatsi egin da. Hau da, egia da plaza gehiago egon leitekezana, baina estaldurea txikiagoa da. Premina handiagoa dago eta plaza gitxiago artatzeko.

Desgaitasuna edo gaixotasun mentala daben personentzako egoitza-zentroak. Estaldura-indizeak be behera egin dau, batez be lotsagarriak dira osasun mentaleko arazoak dabezan personen beharrei erantzuteko datuak.

Edadekoentzako egoitza-zentroen estaldurea baino ez da hazi, baina zerbitzuari lotutako prestazinoari esker.

Eguneko eta Egoitzako Arreta Sareko plaza-kopurua ez da nahikoa gaur egungo eskaerari erantzuteko, eta arabere gitxiago atsedeen hartzeko eskaerari erantzuteko; halanda ze, *de facto*, baliabide erabilgarririk ez izatea eskubideak ez bermatzea da.

Sano ondo dago lege bermatzaileak izatea, baina garatuko ez badoguz edo inbertiduko ez badoguz, *de facto*, ez dogu eskubide hori bermatzen.

Esan deusuegu, gainera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Legeak zuon eskumeneko zerbitzuetan atsedenerako plazak erreserbetako agindua jasoten dauela. Eta hori be ez da beteten. Eta Sailak berak aurtengo zezeilaren 14an gure taldeak egindako galdera bati emondako erantzunera joango naz. Zera erantzun jakun: “edadekoei jagokenez, ez dago gordetako plaza-kuporik mendetasun-egoeran dagozan edadekoei egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko, zentro bat aukeratuko dala bermatze aldera”. Tira, zeozer positiboa badauka, antza. Gaur egun, edadekoentzako eguneko zentroetan ez dago atsedenez-zerbitzurik. Eguneko zentroetan ez dagoala plaza-erreserbarik esan gura dot.

Desgaitasuna daben personei jagokenez, honako hau dino: “Aldi baterako egonaldien kasuan lez, errazoi berberakaitik, ez dago atsedenez-egonaldi horreetarako plaza-kuporik gordeta desgaitasuna daben personentzat”. Hau da, ez gara beteten ari daukagun legeriak ezarten dauena.

Hasieran esan deusuegu eskubide hori ez bermatzeko beste errazoietakoa bat dala dekretu arautzaileak eskubideak bermatzera baino galarazotera bideratuago dagozala.

Irakurri daigun apur bat zer agertzen dan dekretuetan. 192/2018 Dekretua, Zaintzailearen Estatutua arautzen dauena. 8.1. artikulua egoitzetan aldi baterako egonaldiak eginez atsedenez hartzeko eskubidea jasoten dau, eta atsedenezdirako aukerea emoten daben beste zerbitzu batzuk be, baina horraino baino ez da heltzen horren inguruan egiten dan aitamen guztia. Baina zer jazoten da erregulazino espezifikoa? Egoitzetara sartzea atsedenez hartzeko. Hain zuzen be, 124/2021 Dekretuak jagoleen atsedenezari lotutako prestazino ekonomikoa arautzen dau.

2. artikulua: “zaintzaileei atsedenez emateko dekretu honetan arautzen den prestazino ekonomikoa aldi baterako egoitza-zerbitzu pribatua finantzatzeko da, hain zuzen, gehienez ere urtean ondoz ondoko hamabost egun finantzatzeko”. Eskubidearen lehenengo mugea dago hor, urtean gehienez ondoz ondoko 15 egunera arte, mendetasun-egoeran dagoan personearentzat eta familiaren ingurunean jagoteko jagoleei laguntzeko prestazino ekonomikoaren onuraduna bada. Ados, eta zera dino: “Foru Erregistroan inskribatuta dauden zentroetako batean gehienez ere urte naturaleko 15 eguneko egonaldi bat ematean datza aldi baterako egoitza-zerbitzua. Atsedenezaldia 15 egunetik beherakoa bada, ingresatze-egunen kopuruaren arabera ordainduko da prestazino, eta horrek ez du sortuko gainerako egunekin beste atsedenezaldia bat hartzeko eskubiderik”. Hau da, atsedenez 7 egunetz hartu behar badozu, gero ez daukazu daborduko beste 7 egunetz atsedenez hartzeko eskubiderik. Beraz, tira, horregaz barrero be eskubideak murriztu egiten doguz.

Baina kontua ez da hor amaitzen; izan be, garagarrilaren leko 84/2014 Foru Dekretuak, mendekotasuna daben personak aldi baterako egoitzetara sartzeko araubidea ezarten dauenak, 4. artikuluan, lehenengo puntuan zera dino egonaldien zergaitiaz eta iraupenez: “Atsedenez hartzea: zaintzaile nagusiak atsedenez edo oporrak hartzea. Egonaldiaren iraupena gutxienez 2 egunekoa izango da”. Beste kasuan ezinezkoa da. Eta “Zaintzaileak atsedenez edo oporrak hartu nahi izatea denez aldi baterako egonaldia eskatzearen arrazoa, egonaldia 30 egun izango da gehienez (29 gau)”.

Zertan geratzen gara? 15 egun dira? 30 al dira? Egoitza aukeratu leiteke? Ezin da aukeratu? Aukeratu ahal badozu, gitxiago eukiteko eskubidea daukazu? Ez dakit, nire ustez, arean korapilatsua da, eta horrek ez dau laguntzen personen eskubideak defendiduten horrek eskatzera doazanean.

Eguneko zentroeiei jagokenez, atsedenez hartzeko errazoiak dirala eta, dekretu arautzaileek zentroaren helburua aitaten dabe, hau da, ohiko jagoleei laguntzea emotea. Baina horraino heltzen da arautze osoa. Hau da, ez da argi-argia, eta, gainera, eten

barik idazten da termino murriztaileetan.

Eta datu horreek mahai gainean jarrita, uste dogu beharrezkoa dala sailak neurri osogarriak abiarazo daizala, persona horreek, jagole ez-profesional eta informalak, benetan atsedean hartzeko aukerea izan dagien. Halanda ze, bigarren zatian ikusi eta eztabaidatuko dogu 15 eguneko edo gehiagokoa izan behar dauen, eta horregaitik galdetzen deusugu zer neurri jarriko dozuzan martxan hori bermatu ahal izateko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Murillo Corzo, tiene usted la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Sí. Señora Presidenta, junteros/as, buenos días.

La señora De Madariaga me pregunta qué va a hacer el Departamento de Acción Social para garantizar el derecho que tienen las personas cuidadoras para el respiro.

“Zer abiarazoko dozue?”

Bueno, intentaré responder a esa pregunta de forma detallada, pero antes he de decir que nosotros/as..., ponemos en valor los cuidados que ella menciona en la justificación de su interpelación, que los reconocemos a través de decretos, y que los decretos reconocen nuevos derechos. En el documento no se recogen algunos de los decretos que luego usted ha mencionado, diversos decretos forales, y me llamaba la atención, pero por fortuna al menos los ha mencionado a la hora de plantear la interpelación en el pleno de hoy. Ha mencionado usted decretos como el Estatuto de la Persona Cuidadora, así como el decreto, el decreto foral publicado el 15 de noviembre, el pasado 15 de noviembre.

Jakina, gu, Bizkaiko Foru Aldunditik iraupen luzeko zainketen trantsizinoan sartuta gagoz, sustapen horretan. Iraupen luzeko zainketak behar dabezan persona horreei erantzun eta laguntza hobea emon gura deutsegu, persona horreek dira-eta euren bizitzako lehen mailako eragileak, baina hori etxe baten, etxebizitzan gertatzen danean zaintza horreetan parte hartzen dauen zaintza-ekosistema bat dago inguruan, eta zaintza horreetan be jarri behar dogu arreteak.

Baina ez dogu orain egiten, eta ezin dogu etorkizunean egin, zuk aditzera emon dozun lez. Baina guk, Aldundi honek, Gobernu Kontseiluak 2018an Zaintzaileen Estatutua onartu eban. Ez dot ezagutzen hain garrantzi handia daukan araudirik estadu osoan, eta horretan zure taldeak badauka erantzukizunen bat.

Iraupen luzeko zainketak foru-dekretu baten islatzen doguz, eta jagole horreek autortu egiten doguz. Eta, gainera, bertan eskubideak autortzen doguz. Halanda ze, lehenengo atazea eginda, hau da, autortzea. Baina ez gara hor geratzen. *Egiten* proiektukoak gara, *Bizkaia Egiten* proiektukoak. Bada, ordurik hona, urrats garrantzitsu hori emoteaz gain, aurrera egin dogu eta mekanismoak martxan jarri doguz. Zuk bat aitatu dozu, eta zuk zeuk izapidetzean ahaztu egin dozuna, jagoleentzako atsedean, hain zuzen be. Unibersalak egin doguz, ez dogu plazak gordeteko muga bat ipini, danek daukie-eta 15 egunetz atsedean hartzeko eskubidea. Ez dot antzeko araudi unibersalik be ezagutzen estaduan. Ia guztiz finantzautu. Izan be, gertatzen dan gauza bakarra da 15 egun horreetan eten egiten dala familia-inguruneke zainketakaitiko prestazino ekonomikoa. Plazearen

gainerakoa, beraz, guk finantzetan dogu. Prestazino ekonomikoa eteteaz gain ez dauka beste inongo koordainketarik.

Eta sasoi haretan egin genduan, eta emoitzea... Jakina, 2019tik aurrera ipini ziran martxan eta pandemiaren testuinguruan lortutako emoitzearen ebaluazioa egitea gatxa da, pandemiak berak sortzen dauen distorsinoa daukagulako. Baina 2021eko azken seihilekoari jagokozan datuak emongo deusuedaz, orduan hasi zan-eta pandemia arintzen. Daborduko 221 lagunek jaso dabe 15 eguneko atsedenaldira hori Bizkaian, Bizkaiko Foru Aldundiko Zaintzaileen Estatutuan autortutako atsedeen hartzeko zerbitzuari lotutako prestazinoaren bidez. 2021eko lehenengo seihilekoan baino 10 aldiz gehiago dira. Aurreko agerraldi baten adierazo neban hementxe. Ikusten dogu pandemiak egoitzetan daukan eraginaren gitxitzeagaz 2019an diseinatu genduzan atsedeen horreek gora egin dabela, eta, azkenean, Bizkaian testuinguru normalizatuago baten zabaldu leitekezala. 2021eko lehenengo seihilekoan baino 10 aldiz gehiago dira jagoleek dabezan atsedena, eta aurrerapen esponentzial horrek bilakaerea izan dagiala espero dogu.

Baina Zaintzaileen Estatutuak atsedeen gehiago ekarri ebazan. Izan be, gaur egun 1.300 personak dabe familia-ingurunean zaintza-lanak egitearren eta eguneko arreta-zentroetarako prestazino ekonomikoaren bateragarritasuna, bai lanean edo bai eguneko zentroan. Hori be atsedeen hartzeko zeregina da. 1.300 persona, egun horretatik aurrera. Hori be ez dot uste gure erantzukizunak dabezan beste eremu batzuetan orokortuta dagoanik, baina gu gurera. Izan be, gehiago dagoz. Izan be, atsedeen hartzeko funtzioak dabezan beste ekintza batzuk dagoz, Zaintza Eskolea, esaterako. Jagoleek prestakuntzara joaten diranean be atsedena daukie. Edo eguneko zentroen modalidadea, daborduko erreserbetan ez doguna, eguneko zentroen modalidade bat da-eta, astegoienetakoa eta astegoienetakoa, jagoleek eta mendetasun-egoeran dagozan personek astelehenetik barikura bitarteko eguneko arreta-modalidadearen edo astegoienetako modalidadearen artean aukeratu dagien. Halan dino Bizkaiko Foru Aldundiaren dekretu arautzaileak. Era berean, ez dodaz ezagutzen bateragarritasuna eta, beraz, mendetasun-egoeran dagozan personen jagoleentzako atsedena sustatzeko bi modalidade horreek dagozan leku asko.

Eta, jakina, honegaz, egiten jarraitzen dogula baino ezin dot esan. Baina ez dogu egin..., badakigu 15 eguneko atsedenaldira horreek erraz garatu leitekezana mendetasun-egoeran dagozan edadekoen kasuan. Desgaitasuna daben personentzat %33 igon dogu 2021ean; 2021ean %32,5 gehitu dogu desgaitasuna daben personen atsedenaldirako gordetako plazen kopurua: 10 Mundakan desgaitasun intelektuala daben personentzat eta 3 Santurtzin gaixotasun mentala dabenentzat. Gainera, Bizkaian ez egoan gaixotasun mentala daben personen modalidadea, eta orain eskuragarri dago jagoleentzat eta gaixotasun mentala daben mendetasun-egoeran dagozanentzat.

Persona bakotzeko 15 egun, 1.300 aukera dira, personentzako 15 eguneko 1.300 atsedeen. Egiten, egiten jarraitzen dogu.

Horixe da zure galdereari buruz azaldu gura izan deusudana. Eta, gainera, badakit Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontuak emon euskun aukerea lako gehiago euki ezker aurrera egiten ausartuko zariena, hori espero dot. Izan be, aukerak dagozanean personen alde erabili behar doguz, ez gugaitik, ez zuokaitik, ezpada jagoleakaitik eta mendetasun-egoeran dagozan personakaitik. Izan be, guri, administrazioan garan heinean, ez jagoku jagole horreek ordezea, ezpada laguntzea emotea; euren bizi-proiektua, jagoleena, garatzen jarraitzeko aukerea emon behar jake, mendetasun-egoeran dagozan personen bizi-proiektua babesteaz gain.

Horixe da agindu etikoa, baina baita nik zemendian hemen adierazo neban be, eta Victoria Campsen berbetan aitatzen neban, jagoleen eta familia-inguruneko zainketen harira itandu zeunstenean. Halanda ze, hori da egin behar doguna: lagun egin eta

lagundu, indartu, babestu eta sendotu. Zaintzaileen Estatutuaren arau-garapenak baino, atsedenerako, prestakuntzarako, informazinarako eta abarretarako eskubideak modu eraginkorrean zabaltzeak egin dau hori. Horreek dira urratsak, horreek dira garatzen ari garan ekintzak. Bide horretatik jarraituko dogu. Espero dot zeuok be bidean aurkitzea, espero dot alkar ikustea bizkorrago joan gaitzean. Izan be, jakina, abiadurea modulau egin leiteke, eta proposamen hobeak badagoz, ildo horretan gehiago aurreratzeko proposamenak, seguru nago bat etorriko garana.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Murillo Corzo. En el turno de réplicas, señora de Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, alkar ikustea gura izateko, egia esan, arean jarrera defentsiboa erakutsi dozu hasieratik.

Zera dinozu, ezta? *Bizkaia Egiten*. Tira, nik uste dot beste datu batzuk emongo deusudazala, zure sailak berak emon deustazanak, hatan be, bai? Berbarako, desgaitasuna daben personen jagoleek atsedean hartzeko daben eskubidea izango dogu berbabide. Ikusiko dozu zelan ez dan atsedeanaren eskubidea behar dan moduan bermatzen, eta, gainera, zelan ez dagoan baliabide nahikorik. Zertan oinarritzen dogu informazio hori? 2021ean egindako aldi baterako egonaldi-eskaeren kopuruaz galdetuta, esan deuskue 1.173 eskaera egin zirala, ezta? 2020an baino 128 gitxiago. 2019an baino 250 gitxiago. Hau da, eskaerek ez dabe gora egin. Eskabideetan behera egiten ari gara. Ederto.

Nabarmendu behar da 2019an eskaera horreen %50 baino gehiago ukatu zirala, eta 2020an eta 2021ean. Bai? Zure sailaren berbetan, ezezkoa emoteko errazoa eskuragarri dagozan plazen eta eskaerearen arteko desorekea da, tipologiaren eta dataren arabera. Hau da, emoten dau atsedean hartzeko eskubidearen bermea ez dagoala hain bermatuta, ezta? Ukatzeko errazoi hori %71koa da 2019an, %63koa 2020an eta %29koa 2021ean. Egia da jatsi egin dana, baina 2021eko beste datu bat emongo deusut. Hara, nire ustez, azterketa zehatzagoa egin behar da. Eskatzaileen %21 horri gehitu beharreko %57k uko egin eutsien azkenean. Benetan uste dozu foru-sareak daukazan plazak, gitxienez desgaitasuna daben personentzat, nahikoa dirala jagole ez-profesionalei atsedean hartzeko eskubidea bermatzeko? Zure sailak emondako datuak erabilten ari naz. Esan gura dot ez dodazala asmatu. Guk ezetz uste dogu. Uste dogu ezetz. Eta gaur hona etorri gara eregiteko asmoaz. Halanda ze, eta “tira, bai, ea alkar ikusten dogun” dinozunean..., baina hasieratik zapatileaz jotzen hasi zara; beraz, probetxuzko jarrera handirik ez dot ikusi.

Ea bueltea emotea lortzen dogun, proposamen batzuen bidez ea lortzen dogun akordio batzuetara heltzea hemendik hurrengo Osoko Batzarraren astera, kontuan hartu beharreko beste gai garrantzitsu batzuk be badagozalako, hau da, zeintzuk dira zerbitzu horreen okupazio-indizeak? Hau da, plaza-erreserbarik ez badaukagu eta okupazio-indizeak, esan deuskuzuen lez, %97tik gorakoak badira, gatxa da atsedena behar daben personek horretarako aukerea izatea, ez dago-eta plaza nahikorik. Halanda ze, zera esan dozu “tira, plaza barri batzuk sortu dira, 10 Mundakan, 3 Santurtzin...”, ezta?, eta artatzeko modalidade desbardinak dagozala. Tira, eskerrak orain Mundakakoak eta Santurtzikoak dagozan. Izan be, esango deusut: Arrigorriaga, Sondika, Getxo..., hau da, desgaitasuna daben personentzako eguneko zentroak ez dira ugariak eskualde guztietan, eta

horrek be gatz egiten dau, batez be desgaitasunen baterako, lekualdatze-mueta hori, eta hori kontuan hartzea interesgarria litzateke.

Halanda ze, behin hori esanda, uste dot aldi baterako egonaldi horreek modu unibersalean, zeuk adierazo dozun terminoan, gehitzeaz egin geinkela berba, eta, gainera, zentro egokiena, hurrekoena eta personen arreta-beharretara eta arreta-berezitasunetara egokitzen dana aukeratzea bermatu ahal badogu, espazioen erreserba hori egin ahal bagendu... Tira, ez bakarrik egoitza-guneetan, ezpada eguneko espazio batzuetan be, horren beharra ikusten dalako... Zergaitik ez gara gaueko zentroak aztertzen hasten? Beharbada, hor emoten dauena baino eskari handiagoa dagoala ikusi geinke, eta ez da azaltzen. Beraz, zera esan gura dot: mahai gainean hainbat elementu ipini leitekez, araudiek jasoten dabezan bateraezintasun batzuk ezabatzea, esaterako. Izan be, hori bermatu gura badogu eta horretan bat bagatoz, eta espero dot bat etortea, esan dozunagaitik, bada, ez dot uste hain gatxa izango danik.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Murillo Corzo, tiene usted la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Señora Presidenta, muchas gracias.

Procuraré, quizás, hacer un poco de pedagogía.

Zelan izan leiteken 2019an okupazioaren %93 izatea (2020ko eta 2021eko pandemia-urteetako datuak ez erabiltearren), edo 2020an okupazioaren %76 desgaitasuna daben personentzako atsedenerako baliabideetan, eta tipologian eta datetan bat ez datozan eskaerak egotea? Bada, buruko gaixotasuna daukan persona bat ezin dogulako sartu adimen-desgaitasuna daben personak dagozan zentro baten. Garun-paralisia daukan persona batek laguntza batzuk gehiago behar dauz atsedeen-zentroan, arabere gehiago arretearen ezagutzea eta jarraipena bat-batean edo egun batetik bestera bermatu behar doguzalako, nahi-ta aldezturik bisita bat egin eta espedienteaz ezagutu, baina personea bera ez da ezagutzen, eta ezin dogu egokitze zehatzik egin. Eta ukatzeko funtsezko faktore bat dago. Persona batzuek hilebete jakin batzuetan hartu gura dabe atsedena. Udako hilebetez ari naz. Atsedeen hartu leiteke eta guztiok atsedenerako gura doguzan ondorioak sortu leikez: atsedeen hartzea, lasaitzea, jagolearen gainkarga saihestea..., hori guztia urtarrilean, zezeilan, martian, apirila ez dot aitatu hori Aste Santua izaten dalako, maiatzean, baina baita urrian, zemendian... Hilebete horretan eskari gitxiago dagoz, eskabide gitxiago, eta hor ez da erabilgarritasun kontua bakarrik, baliabideak, plazak eskuragarri daukaguzalako, eta talde profesionala be eskuragarri dago, baina batzuetan ez datoz bat personek gura dabenagaz. Hori kontuan izan behar dogu atsedeen-lekuen eskura jarritako plazen okupazioari buruzko datuak irakurterakoan.

Gaiztasun hori zan saileko teknikariek erantzuten eutsuena tipologiak eta datak egokitzeari buruz. Bizitza bera lakoa da. Sailaren eguneroko jardunaren errealidadearen konplexutasuna da.

Horregaitik, persona batzuek uko egiten deusie aldi baterako egonaldia abuztuan emoten ez badeutsegu, beteta dagoalako, eta gurago dabe ez hartzea.

Eta batez be eguneko arretearen zonifikazioari jagokonez, zonifikazioa sektoreka daukagu, horixe da-eta Zorroak desgaitasun-zentroetarako esaten dauena, eta, gainera, eguneko arreta-zentroek garraio-zerbitzua daukie. Zonifikazioa

hobetu egin behar dogu. Ariketa bat egiten ari gara eta mapeagaz etorten naz, mapeagaz etorri nintzan 2020ko garagarrilean, desgaitasunaren arloan, eta 100 plaza sortzeko konpromisoa hartu neban. 100 plaza sortzeko konpromisoa hartu genduan, eta daborduko sortu doguz, eta beharrean jarraitzen dogu beste batzuk sortzeko. Izan be, orain dala bi aste buruko gaixotasuna daben personentzako etxebizitza barri bat zabaldu barri dogu Bilbo inguruan. Tira, mapa hori eskuan dogula jarraitzen dogu, eta 2020ko garagarrilean konprometidu eta planifikau genduzan 100 plaza baino zerbitzu gehiago be garatu doguz.

Alkarguneak bilatzeko, nire eskaintzea zintzoa dalako eta horrelangoxeak dira nire berbak, egin dogun aurrerapenetik abiau behar garala uste dot. Onartu daigun aurrera egin dogula, ez gagozala traketsen tropelean, ezpada onen tropelean. Onak izaten jarraitu gura dogu, eta hobetu. Eta hor, luzatutako esku guztiak zure esanetara egongo dira erantzun hobeak eregi ahal izateko. Baina hasi gaitazan esaten badirala mekanismoak, eta hobetu egin behar doguzala edo eskaintzan eta lurralde-oreka hobean hazi. Primeran. Nik neuk 2020ko garagarrilean lurralde-orekan hobetu egin behar dogula onartu neban eta plaza-kopuruan aurrera egin behar dogula. 2020ko garagarrilean berbea emon genduana bete dogu.

Planifiketan jarraitu geinke eta aurrera egiten jarraitu geinke. Horixe da gure planteamentua, horixe da gure plana, eta horretan aurkituko gaituzue beti aurkitu gaituzuen lez, eta, beraz, arlo horretan egiten deuskuzuezan proposamenetara adi egongo gara.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Murillo Corzo.

El punto sexto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2022/0000247](#))

Autor: Andrade Aurrecochea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Asunto: Pérdida de empresas en nuestro territorio por cambios de domicilio social.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2022/0000247](#))

Expediente: ([11/B/25/0003163](#))

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2022/0000247SE](#))

Egilea: Andrade Aurrecochea, Eduardo (GM/TB-PPB)

Gaia: Egoitza soziala aldatzearen ondorioz gure lurraldeak enpresak galtzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000247SE](#))

Espedientea: ([11/B/25/0003163](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Andrade Aurrecochea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Hontsu gure lurraldeko enpresek bertatik iges egin dabela irakurri ahal izan dogu komunikabideetan. Deigarria da, eta ahozko galdera honen jatorria Siemens Energy España enpresek egoitza soziala Madrilerako eroango daukela iragarten euskun albistea izan zan. Egia esan, horrelango titular gitxi behar dira gaur Foru Gobernuari egiten deusagun galderearen garrantzia erakusteko.

Beste behin be, agirian geratzen da gure lurraldeari eragiten deusan errealdade gatxa eta, nahi-ta Foru Gobernuak ukatu, egoera horren oinarria talentua eta enpresak atxikitzeke gure lurraldearen lehiakortasunaren galeran dago, eta baita, zergaitik ez?, enpresetarako eta horreek zuzentzen dabezan personentzako fiskalidade sano negatiboan be.

Horregaitik guztiagaitik, zera galdetzen deusuegu: ze jarduera jarri gura dauz abian Aldundiak egoera horri bueltea emoteko?

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. En el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Basurko Urkiri, tiene usted la palabra.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

En cuanto al saldo de cambios de domicilio social de las empresas entre las Comunidades Autónomas del Estado, si bien es cierto que la Comunidad Autónoma de Euskadi presenta un saldo negativo de 39 empresas para el ejercicio 2021, lo cierto es que, para situar este dato en su justa medida, debo decir que representa el 0,027% de las empresas con entidad jurídica en Euskadi y que en el ejercicio anterior el saldo fue positivo, con un valor de 4 empresas, y la tendencia desde 2014 está siendo positiva en la evolución de este indicador, siempre dentro de márgenes de variación inferiores al 0,05% del total de empresas con entidad jurídica en Euskadi.

Como todos ustedes saben, atraer empresas a Bizkaia y crear más empresas en nuestro territorio, así como recuperar y atraer talento innovador y emprendedor, es un tema prioritario para la Diputación Foral de Bizkaia, y en especial para el Departamento de Promoción Económica que dirijo.

Nazinoartean Bizkaia eta Euskadi etorkizuneko enpresa-ekimen teknologikoak garatu daitezkan ekintzaitzako eta barrikuntzako ekosistema erakargarria daukan lurraldea izan daiten lan egiten dogu, gure ekintzaitza-eredua eta gure enpresa-sarea definiduten daben lehia-ezaugarriak eta –abantailak sustatzetik abiauta. Lurraldea kokatzea, azken baten, talentu ekintzailea erakarteko eta startup-ak gure lurraldeko enpresa erreferenteakaz eta eragileakaz alkarreraginean jarteko.

Arlo horretan egiten doguzan jarduera guztiak laburtzearren, jarduera horren hiru elementu nagusi baino ez dodaz aitatuko:

- Alde batetik, Bizkaia Start Up Bay Estrategia, Bizkaia ekintzaitzarako eta hazteko Europa hegoaldeko lekuri onena bihurtzeko helburuagaz

diseinatu dana, non persona ekintzaileek euren enpresa-proiektuak gauzatu ahal izango dabezan, nazinoarteko hazkunde- eta lehiakortasun-gaitasun handiko enpresa barritzaile barriak abian jarriko diralako.

- Beste alde batetik, BAT, B Accelerator Tower martxan ipintea, nazinoarteko 140 nodo baino gehiagogaz konektuta, eta startup, enpresa, inbertitzaile eta partner teknologikoen komunitate handi bat sortuko dauena. Dakizuenez, zentroak espezializazio-maila handiko programa eta zerbitzu ugari eskainiko dauz startup-ak bizkortzeko eta urtenbide teknologiko barriak garatzeko.

- Eta hirugarrenik, Invest in Bilbao Bizkaia zerbitzua, inbersino barrien eskaerari erantzuteko, lurzoruaren eskaintza integralagaz, finantzaketa espezifikogaz, berezko fiskalidadeagaz eta barrikuntzarako, lotutako inbersinorako eta nazinoartekotzeko laguntzakaz.

Lan-ildo horreekaz, (batzuk garatuago dagoz eta beste batzuk gitxiago, dakizuenez), 2019-2021 aldian 57 enpresa erakarri dira Bizkaira.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Basurko Urkiri. En el turno de réplicas, señor Andrade Aurrecoechea, tiene usted la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, Mahaiburu andrea.

Egia esan, erantzuna nahiko kaskarra izan da, nire ustez. 2019-2021 aldian 59 enpresa erakarri dirala aitatu dozu, baina adierazo dozun moduan, eta estadistikek halantxe erakusten dabe, Bizkaian enpresak galdu besterik ez doguz egiten.

Enpresen egoitza sozialen bilakaerea egiten dauen Espainiako Erregistratzaileen Elkargoak argitaratzen dauen estadistikeak adierazoten dauenez, Euskadik 253 enpresa galdu dauz Madrilerantza, esaterako, eta horreetatik 225 baino ez dira heldu; erregistratzaileen txosten horren saldo negatiboa -28koa da.

Era berean, Dunham Brad Stretch enpresearen beste estadistika batek aztertu dau gitxienez 39 enpresa galdu doguzala azken urteko aldi horretan.

Confebaskek berak aztertu deuskuz pandemia hasi zanetik azkenekoak, eta hontsu komunikabideetan argitaratu dau Euskadik 1.300 enpresa galdu ebazala pandemia aurretik, ezta?

Horreetatik, Bizkaian ia 650 enpresa galdu doguzala aztertu geinke pandemia aurretik. Halanda ze, hartzen ari zaien neurriak, zuk aitatu dozuzanak, gure ustez, urriak dira. Zalantza barik, enpresak erakarteko fiskalidate-aldaketa bat behar da, ez bakarrik torreak eta zuk planteau dozuzan beste aukera batzuk, ezpada alternatiba ausartak fiskalidatearen inguruan, esaterako, eta Batzar Nagusi honeetan araututa daukagun autonomia erabiltea, Batzar Nagusien etxe honek neurri ausartagoak hartu daizan enpresen igesagaz amaitzeko, gure ustez, sano garrantzitsua da-eta horri amaierara emotea.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Andrade Aurrecoechea. En el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Basurko Urkiri, tiene usted la palabra.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Muchas gracias de nuevo.

Tira, aurreko agerraldian aitatu dozuzan datuak testuinguruan kokatu dodaz, eta gure lurraldea erakargarri egiteko zer egiten ari garan galdetzen zeunstan, ez?, eta gauza batzuk aitatu deusudaz.

Alde batetik, estrategia bat daukagu, eta estrategia horren helburua be bada gure lehia-abantaila guztiak balioestea eta erakartea, zerbitzu baten bidez, Invest in Bilbao Bizkaia zerbitzuaren bidez, laguntzakaz, fiskalidateari balioa emonda, espazioei buruzko informazioa emonda, etab. Eta endemas gure lurraldean interesa euki leiken edozeinek ekosistemeagaz daukan loturea azpimarratuta. Eta hirugarrenik, Ekintzaitzearen Nazinoarteko Zentroaren proiektua, esaterako, horren bitartez hondinokarren be urrats proaktiboagoa emoten dogu-eta erakarpen-zeregin horreetan.

Erakarri diran 57 enpresa horreei buruzko datu batzuk emotearren, tira, horreetatik 19 izan ziran 2019an, 2020an 12, 2021ean 26. 9 ETE eta 48 startup ziran. 18 atzeritarrak: 9 Europakoak, 3 Estatu Batuetakoak eta 6 Hegoamerikakoak, eta 29 Estadukoak; horreetatik 16 Madrilgoak eta Bartzelonakoak dira.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundia hainbat proiektu estrategiko garatzen ari dala aitatu gura dot. Horreen helburua da gure enpresak lurraldean finkatzeko baldintza egokiak sortzea eta, ahal dan neurrian, lurraldeari osagai barritzaile eta teknologikoko jarduera barriak erakartea.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Basurko Urkiri.

El punto séptimo del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2022/0000264](#))

Autor: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Asunto: Medidas de carácter tributario de 2022.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2022/0000264](#))

Expediente: ([11/B/25/0003168](#))

7.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2022/0000264SE](#))

Egilea: Urkaregi Etxepare, Arantza (EHB)

Gaia: 2022ko zerga arloko neurriak

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000264SE](#))

Espedientea: ([11/B/25/0003168](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Dentro del Plan Anual Normativo 2022 de la Diputación Foral de Bizkaia, con respecto al Departamento de Hacienda y Finanzas figuran tres Normas Forales.

Las dos primeras son dos impuestos nuevos concertados por el Concierto Económico, que son las famosas tasa Google y tasa Tobin, pero la tercera Norma Foral se refiere a las “Medidas de carácter tributario”, y los objetivos que se establecen son:

-Adaptar la normativa de Bizkaia a las modificaciones introducidas por las administraciones tributarias de nuestro entorno.

-Introducir otras modificaciones de reajuste en el ámbito de la imposición directa.

Por ello, nuestra pregunta es: ¿cuáles son los impuestos que quieren modificar y las adaptaciones y modificaciones de reajuste que quieren introducir?

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Urkaregi Etxepare. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Iruarrizaga Artaraz, tiene usted la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta, buenos días a todos/as.

Uste dot Urkaregi andreak badakiala 87/2021 Foru Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen dauena eta ekimen bat Urteko Araugintza Plan baten sartzen dana xedapen horreen arabera, ezta?

Dekretu horretan bertan arautzen da Urteko Araugintza Plana be, eta ekimen bat Urteko Araugintza Plan baten sartzeak esan gura dau onartu beharreko Araudiaren ildo nagusien estimazio hutsa dala, hau da, xedapenaren izena eta maila, lortu gura diran helburu orokorrak eta onartzeko aurreikusten diran epeak ezartea, besteak beste.

Zerga-neurriei buruzko Arau Proiektu honen maminari buruz galdetzen deustazu, eta 2022ko Urteko Araugintza Planak dinoari erreparetan badeutsagu, Aldundiak gitxi gorabehera 2022ko bagilaren 1era arteko epea aurreikusi dau hori onartu daiten.

Halanda ze, ulertuko dozu unada honetan, bada, arau-proiektu honen bidez Bizkaiko zerga-sisteman egin gura diran aldaketen ildo nagusiak azaltzeko moduan baino ez nagoala.

Aldaketa horreen artean, edo 2022rako aurreikusten diran horreen artean, gure zuzenbide-sistemea Europar Batasunera egokitzen dala betete aldera,

erregulazio batzuk sartzeko asmoa daukagu, esaterako: kooperatibak ez diran jurisdikzioen kategoria sartzea zerga-ondorioetarako, ez-egoiliarak aurkezteko araubidea egokitzea edo atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emoteko betebeharra eta hortik eratorritako zehapen-sistemea egokitzea, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2022ko urtarrilaren 27ko epaiaren arabera, hau da, 720 eredu lez ezagutzen dana.

Beste alde batetik, prozedura-mailan egindako hobekuntzak modu berezian aitatzea be merezidu dauela uste dot, bai zergen kudeaketaren arloan, bai ikuskapenaren arloan, gure Zergei buruzko Foru Arau Orokorra aldatze aldera. Horren helburua da zerga-iruzurra prebeniduteko eta horren aurka burrukatzeko jarduketak erraztera bideratutako aldaketak sartzea, zerga-kontrola indartuz eta lurralde erkidearen eremuan onartu barri diran aldaketakaz bat etorritz. Aldaketa horreen artean, honakoak nabarmenduko neukez: zerga-zordunen zerrendearen publizidade-araubidea aldatzea, edo zergak ikuskatzeko ahalmenak aldatzea Konstituzinoaren babespean dagoan etxebizitzan sartzeko araubide barrian.

Azkenik, hiru lurralde historikoen arteko zerga-arloko arau-erritmoek zerga-arloko neurriak edo aldaketak sartzea eskatzen dabe, zerga-harmonizazioaren printzipioaren onerako.

Horren haritik, Arabak eta Gipuzkoak onartu barri dabezan neurriak txertatu gura doguz, bai Persona Fisikoen Errentearen gaineko Zergan, bai Soziedadeen gaineko Zergan.

Zalantza barik, aitatutako dekretu horren arabera, bere momentuan zerga-neurriei buruzko Foru Arauaren aurreproiektua arauz prestetako prozedura txertatuko da. Prozedura horretan, entzunaldi publikoaren izapidea zabalduko da, herritarrek eta eragindako erakundeek egoki eretxitako ekarpenak egin ahal izan dagiezan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kontseiluak onartu aurretik, eta, ondoren, Batzar Nagusietan eztabadaitzeko, azken berbea dabe-eta maminari eta onarpenari jagokenez.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. En el turno de réplicas, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, Iruarrizaga jauna. Onartu behar deutsut erantzun gura ez deustazunean, ez deustazula erantzuten. Edo ezpabere, hain zara iluna...!

Izan be, ez dot jakiterik lortu lehengo egunean berankorren zerrendan agertzeko mugea jatsiko dozuela esan zenduen hori horrelan izango dan edo publizidadea baino ez dan izango.

Ez deustazu be ezer esan, Araba eta Gipuzkoakoa aitatu dozunean, SICAVen Araudia dan, desegin ahal izan daitezcan, baina, tira. Halanda be,

El señor Lehendakari Urkullu dijo el pasado mes de diciembre en un foro organizado por *El Correo* y el Banco de Santander, “2022an hausnarketa-urtea izango

da eta fiskalidadeari buruzko neurriak hartzeko unea be bai”.

Hara, hausnarketearen inguruan, bat nator Urkullu jaunagaz. Eta ados nago neurriak hartu behar izateagaz be. Ez dakit zergaitian ados jartea lortuko dogun, nahita lehengo egunean Azpiazu jaunak Finantzetako Euskal Kontseiluan esan eban ez dala zerga-erreformarik toketan. Hau da, ez dakigula.

Volviendo al Lehendakari Urkullu, citó tres ejes:

-La recaudación actual y las necesidades de financiación a medio plazo. Y que en función de ello se decidirá si aumenta, se mantiene o disminuye la presión fiscal.

-En segundo lugar: qué hacer con el Impuesto sobre el Patrimonio y el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones.

-Y en tercer lugar: tener en cuenta las modificaciones fiscales que realice el Estado.

De ello,

Ondarearen gaineko Zergearen eta Oinordetzearen gaineko Zergearen inguruan ez dozu ezer aitatu. Ez dakit ez dagozalako dan, edo hondinokarren ez dozuelako pentsau, baina Urkullu jaunak abenduan aurreratu eban. Ez dakit.

En todo caso, EH Bildu tiene claro que tenemos que hacer una reflexión profunda sobre el sistema fiscal, teniendo en cuenta dos elementos:

Uno: garantizar a medio y largo plazo la financiación necesaria para atender las necesidades sociales existentes y dar respuesta adecuada a las mismas.

Y segundo: cómo se recauda el dinero. Es decir, los contribuyentes deben tributar en función de la riqueza de la que dispongan, en la proporción que corresponda, no menos, es decir, necesitamos un sistema fiscal justo y progresivo.

Y EH Bildu tiene claro que no se trata de aprobar una Norma Foral como se hizo el pasado mes de diciembre, en ese caso, sobre medidas que supuestamente iban a favorecer la reactivación económica; ni de aprobar ahora otra Norma Foral no sé de qué. Pero siempre sin ningún tipo de debate en profundidad. Porque el debate no es poner en la página web..., izan be, horren haritik..., tiene una participación bastante más reducida, luego las alegaciones, un debate aquí y ya está. En opinión de EH Bildu, primero debemos hacer un debate amplio y en profundidad, y no solo entre estas cuatro paredes. Existe un debate en la sociedad, abramos ese debate y hablemos con los diferentes agentes, sindicatos, empresarios... Conozcamos cuáles son sus propuestas y luego concretemos las modificaciones tributarias que hay que realizar.

Reconocemos que tenemos propuestas diferentes. Desconocemos si llegaremos a algún acuerdo. Será algo difícil, pero quizás debamos procurar llegar a acuerdos de mínimos, pero para ello el debate..., no sé cómo decirlo, debemos abrir un debate profundo y apropiado, y no como ustedes lo plantean.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias,

señora Urkaregi Etxepare. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Iruarrizaga Artaraz, tiene usted la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias.

Urkaregi andrea, tira, nire agerraldiari adi egon bazara, nik Zerga Neurrien Arau honetan jorratuko diran zerga-arau asko identifikau dodaz, eta, gainera, Zerga Neurrien Arau bat ia urtero egiten da.

Egia esan, hau ez da... Zerga Neurrien Arauz berba egitea ez da zerga-erreformaz berba egitea, jakina. Ni Neurrien Araua dot berbabide, eta Zerga Neurrien Arauan zer landuko dogun esan deusut.

Eta prozedureak zer ezarten dauen be esaten deusudanez, foroetan edo beste gorabehera batzuetan edo beste atal batzuetan esango dira esango diran gauzak, baina zer ezarten dau prozedureak? Jente-aurrean jarrea, Gobernu Kontseiluaren onarpena Ganbera honetara, eta Ganbera honetan zuoi egokituko jatzue Aldundi honetara ekarten diran neurriak aztertzea, onartzea, ukatzea, baztertzea, zuzentzea... Eta hementxe egingo dogu berba. Eta, jakina, Neurrien Arau honetan ez dogu zerga-erreformea berbabide, eta horrezaz ari zinala uste dot, azkenean, erreforma hori egin behar izateaz. Bada, beharrezkoa izango da jagokon momentuan, jakina.

Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz.

El punto octavo del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

8.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2022/0000272](#))

Autor: De Madariaga Martín, Eneritz (EB)

Asunto: Real Decreto-ley 32/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la garantía de la estabilidad en el empleo y la transformación del mercado de trabajo.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2022/0000272](#))

Expediente: ([11/B/25/0003170](#))

8.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzeara:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2022/0000272SE](#))

Egilea: De Madariaga Martín, Eneritz (EB)

Gaia: 32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoa.

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2022/0000272SE](#))

Espedientea: ([11/B/25/0003170](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, dakizuenez, 2022ko zezeilaren 8ko BOEn Errege Lege Dekretuaren baliozkotzea argitaratu zan, lan-erreformeaz ezagunagoa dana, hatan be, ezta? Gainera, Lege Dekretu horren edukina 2021eko abenduaren 31tik aurrera sartu zan indarrean, kontratazino-arloko salbuespenak izan ezik, horreek 2022ko martiaren 30etik aurrera sartuko dira-eta indarrean. Eta kontuan hartuta lanean persona askok daukiela hartu-emon ez-egonkorra edo aldi baterakoa, bai Foru Aldundiagaz, bai Aldundiari lotutako gainerako erakundeakaz, Aldundiagaz batera Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoa osotzen dabenakaz, hain zuzen be, Aldundiari honakoa galdetu gura izan deusagu:

-Ze neurritan eragiten deutse Errege Lege Dekretu horren aplikazinoak Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoko behargin horreei?

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Y en el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Etxanobe Landajuela, tiene usted la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias de nuevo, señora Presidenta. Buenos días de nuevo a todos/as.

Danok dakigunez, indarrean dagoan lan-erreformearen helburua lan-eremuko behin-behinekotasunaren tasea murriztea litzateke. Horretarako, araudi barriak jasoten dauzan neurri batzuen artean, kontratazino-modalidadeak aldatu eta sinplifikau egiten dira. Obra- eta zerbitzu-kontratua desagertu egin da, eta bi modalidade dagoz indarrean: ekoizpenaren ondorioz egindakoak eta ordezkapen-kontratuak.

Araudiak, funtsean, araubide hirukotxa jasoten dau: lehenengo eta behin, erregulazino barria, 2022ko martiaren 30etik aurrera sinatzen diran aldi baterako kontratuei ezarri ahal izango jakena; bigarren araubide bat, 2021eko abenduaren 31 baino lehen itundutako iraupen mugatuko kontratu zaharretarako araubide iragankorra dana, gehieneko iraupena osotu arte; eta hirugarren bat, 2021eko abenduaren 31tik martiaren 30era arte egindako kontratuetarako.

Sektore publikoaren eremuari jagokonez, kontuan hartu behar da haren laugarren Xedapen Gehigarria, lan-kontratuko beharginei ezarri beharreko araubidea jasoten dauena, eta bertan berenberegi aitatuta dator sektore publikoko beharlekuak bardintasun-, meritu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalen arabera behin betiko bete beharko dirala.

Hori dala eta, argi dago Foru Sektore Publikoak, gainerakoek lez, etorkizuneko kontratuak onartutako araudi barrira egokitu beharko dauzana, kontuan hartuta 2021eko abenduaren 31 baino lehen indarrean egozan kontratu guztiak aurreko araudiaren arabera arautzen dirala. Hau da, berbabide dogun Errege Lege Dekretua indarrean sartu aurretik aplikau beharrekoa.

Kontuan izan behar da, era berean, 2021eko abenduaren 31tik martiaren 30era arte obra eta zerbitzu jakin baterako obra-kontratuak egin leitekezala, bai eta merkaduko gorabeherakaitik, zeregin-pilaketeagaitik edo gehiegizko eskaerakaitik egindako behin-behineko kontratuak be, itundu diran egunean indarrean dagoan lege- edo hitzarmen-araudia oinarritzat hartuta, baina kontuan hartuta ezin dirala 6 hilebetetik

gorakoak izan. Horixe da Araubide Iragakorrak ezarten dauena.

Eta, hirugarrenik, 2022ko martiaren 30etik aurrera egingo diranak araudi barriaren arabera arautuko dirala. Horregaz guztiagaz esan gura dodana da hondino be, aldi batez, hainbat kontratu izango doguzala, bakotxa araubide arauemaile desbardin bati lotuta: erreformearen aurrekoak, hau da, erreformearen aurretik sinatutakoak, araubide iragankorrekoak eta Errege Dekretuan jasotako modalidade barriek araututakoak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eremu zehatzari jagokonez, administrazio publikoa dan aldetik, eta Foru Sektore Publiko osoa osotzen daben foru-erakundeak aitatu barik, esan behar deusuegu arau barri horreek oso eragin mugatua dabela erakunde honetan. Mugatua dala dinogu, dakizuen lez, plantilla osotzen daben beharginen eta lanpostuen tipologia, funtsean, funtzionarioena dalako.

Onartu barri dan lan-erreformeak Foru Sektore Publikoko erakundeei eragingo leuskie batez be, eta, *a priori*, bertan eragin handiagoa euki leike kasu horretan, aldi baterako kontratuak dagozalako.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Etxanobe Landajueta. En el turno de réplicas, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Bueno, gracias, Landajueta andrea, emondako azalpenakaitik.

Uste neban zenbakiren batez etorriko zinala. Izan be, esan dozun lez, behin-behinekotasunak gehiago eragiten deusoen enpresa-sektore publikoari, eta hor jasoten dan behin-behinekotasun maila altuak kezkatzen gaitu batez be. Gainera, batez be merkataritza-soziedadeetan gertatzen dala esan geinke; emoten dau ekosistema egokia dala aldi baterako kontratuak txanpiñoiak lez hazi daitezkan. Eta gustauko litxakigu modu kuantitatiboan arean gehiago definitu daizula. Izan be, endemas merkataritza-soziedadeetan behin-behinekotasunaren gaia ez da 2022ko kontu bat bakarrik, urtetxo batzuk daroguz-eta kontu horregaz.

Merkataritza-soziedadeen, fundazioen eta enpresen behin-behinekotasunak aztertzen saiatu gara, ezta? Eta harritzen ginduzan zelan plantilla finkoan 56 behargin dabezan Basalan lako soziedadeek aldi baterako 31 behargin daukiezan. 31 peoi, peoiak dira-eta beti, eta 2017an aldi baterakoak ziranak. Eta, egia esan, ez dot uste eginkizunak horrenbeste aldatu diranik 2017tik 2022ra, Basalanen bidez urtez urte aldi baterako 31 kontratu egiten jarraitu behar izateko beste.

Edo Beaz soziedadea. Soziedadeak berak dino bere helburu soziala enpresak sortzeko eta kalidadezko beharlekuei eusteko lehiakortasuna sustatu, garatu eta bultzatzeko beharrezkoak diran jarduera guztiak egitea dala, ezta? Eta 2017an aldi baterako behargin batez hasi zan, eta 15egaz heldu da 2022ra. Eskerrak enpresa hori zan kalidadezko beharlekuei eustez arduratzen zana!

Behin-behinekotasun handiaren adibide paradigmaticoa dan beste merkataritza-soziedadeetako bat Garbiker da. Urtero aldi baterako 20 behargin dagoz, eta

urtez urte errepetiduten dira aldi baterako kontratazino horreetako beharlekuak. Ez dauka zentzunik. Eta gure ustez, ez dauka inongo zentzunik Foru Sektore Publikoak horrelango kontratazinoak babestea, hemen enpleoaren kalidadea sortzearen alde lan egiten aitzindari lez agertzen garan bitartean. Ez dauka inongo zentzunik.

GUFek... Zera esan dozu: “ez dau eragin handirik izango Aldundian”. Tira, GUFEn eragina izango dau, bai, foru-erakunde horren behin-behinekotasuna handia dalako, eta barregarria izatera be heltzen dala esango neuke.

Halanda ze, jakin gura doguna zera da: egingo al dozue egoerearen inguruko txostenen bat? Txosten hori Batzar Nagusietan aurkeztuko dozue, ala ez? Modu kuantitatiboan, epeka... Eta, nire ustez, tira, uste dot probauta edo agirian geratzen dala erreforma hori ezartea garrantzitsua dana, ikusita Foru Sektore Publikoan daukan eragina eta foru-erakundeetan be izango dauena, Foru Aldundia merkataritza-enpresa horreetan garatzen aritu dan politikak gorabehera.

Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. En el turno de réplicas, la representante de la Diputación, señora Etxanobe Landajuela, tiene usted la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Esan dogun lez, De Madariaga andrea, eta bat nator zugaz...; hain zuzen be, joan dan hilean boletinean onartu zan erreformea da, eta uste dot erronka bat eta dedikazinoa eskatuko dauen aldaketa garrantzitsua dala, eta erakundeei hori egokitzea eskatuko deutse, guztion aldetik.

Adierazo deusudan lez, administrazino publikoaren barruan, Foru Aldundian, eragina sano txikia da, baina halan bajagoko, gainerako erakundeei jagoke horreetan izan leiken eragina azertzea. *A priori*, une honetan zera esan ahal deusut, badakigula Lan Ministerioa instrukzino bat egiten ari dana. Errege Lege Dekretuaren araugarapena be espero da, eta, tira, ea zer gertatzen dan adi-adi egongo gara, eta bien bitartean, ikusi behar dogu zelan apliketan eta sartzen doguzan erakunde publiko baktotxean erreforma horrek dakarzan barrikuntzak.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Etxanobe Landajuela.

Y el punto noveno del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

9.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2022/0000274](#))

9.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak azertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2022/0000274SE](#))

Autor: Fernández Medrano, Héctor (EB)

Asunto: El estado actual de la atención nocturna en los centros residenciales.

Documento

[\(R.E.11/E/2022/0000274\)](#)

Expediente: [\(11/B/25/0003172\)](#)

Principal:

Egilea: Fernández Medrano, Héctor (EB)

Gaia: Egoitza-zentroetako gaueko arretearen gaur eguneko egoera

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2022/0000274SE\)](#)

Espedientea: [\(11/B/25/0003172\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Eso es. En este caso, corresponde el turno de la palabra a la señora De Madariaga Martín. Por lo tanto, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, badakizue Bizkaiko edadekoentzako egoitza-zentroetako senideen eta beharginen artean kezka ohikoenetako bat gaueko ordutegian behar besteko arretarik ez emotea dana, ratio nahikoa ez daukielako. Horren adibide dira, esaterako, Miranda Fundazioa lako egoitzetako senitartekoen kexak, gaueko ordutegian 55 erabiltzaileko gerokultore bat daukielako, edo Vitalitas Santa Teresan gerokultore bat 37 egoiliar eta erdiko, eta kasu horretan, gainera, erizaintza-zerbitzu barik, eta beteta balego, gauez 54 edadekoentzat profesional bakarra izango geunke berbabide.

Hara, nire ustez, sano adibide argigarria da atzo jazo zan Leireko Andre Maria egoitzearen aldi baterako itxiera, hain zuzen be, gaueko txandea inor barik ixtearren emondako zehapenagaitik, eta horren barri Diputaduak berak be emon eban batzordean. Eta horren guztiaren aurrean, galdetu gura deusugu Bizkaiko Foru Aldundiak ze neurri hartzeko asmoa daukan gaueko arretearen gaur eguneko egoerari buruzko kezkei erantzuteko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Murillo Corzo, tiene usted la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Sí.

La señora De Madariaga me pregunta por la atención nocturna, por la atención nocturna en los centros de personas mayores.

Y debo decir cómo es el proceso, y lo sucedido ayer es el ejemplo más clarificador. Y al menos debemos aclarar el contexto.

Izan be, prozesuaren amaierera da atzo batzordean jakinarazo neutsuena, baina hasierera hausnarketa partekatua da. Zuek halan eskatzen dozue, parte-hartzailea izatea. Eta horixe da Eusko Jaurlaritzea egiten ari dana, arreta-ratioaren garapenean eskuduna da-eta. Eta hausnarketa partekatu hori daborduko gertatzen ari da, Eusko Jaurlaritzea buru dala. Prozesu horretan, arlo horretan eskumenak dabezan euskal administrazio publikoez gain, edadekoak, egoiliarren senideak (6), egoitzetako profesionalak (8), alkargoak, sindikatuak (3) eta adituen batzorde bat eta gizarte-erakundeak ari dira parte hartzen.

Prozesu hori 40 hausnarketagaz amaitu da, 40 hausnarketako dokumentu bat egin dabe, eta horreen artean 22. hausnarketeak arretra-ratioa aitatzen dau eta, gainera, gaueko arreteaz berba egiten dau. Jaso egin dogu. Nik, gainera, udalerriren batek jakinarazo eustazan kezketako batzuk joan dan zezeilaren 15ean Eusko Jaurlaritzeari helduarazo neutsazan, hausnarketa-prozesu horretan txertatu eizan.

Gogoeta horretatik abiauta, esparru juridiko positiboa aldatzea jagoku, gogoeta horreek esparru juridiko positiboan txertatzea, hau da, garagarrilaren 30eko Egoitzei buruzko 126/2019 Dekretuan. Aldatu egin beharko litzateke, eta uste neban argi egoala, joan dan astean Batzar Nagusietan aho batez onartu zenduelako Ganbera honetako taldeen mozino bat. Bertan, ratioari buruzko elementu horreetako batzuk 126/2019 Dekretuaren berrikuspen-prozesuan txertatzea aitatu zenduen, 39. artikuluan txertatzeko. Eta mozino horren laugarren puntuan bertan esaten zan, “ondoren ikuskatu ahal izateko moduan”. Hausnarketea inoan, arau-esparru positiboan sartzea, araudia beteten ete dan ikuskatzea, eta hori beteko ez balitz horren arabera jokatuko dogu.

Horixe da egingo doguna, horixe da egin geinkena eta horixe da egin behar doguna, eta hor, gure zereginen, ez dogu inongo bildurrik eukiko ratio hori egungo araudiak, indarrean dagoan araudiak proponiduten dauzan formuletan beteten ete dan egiaztetako eta gainbegiratzeko.

Horixe da jakinarazo ahal deusuedan guztia, guztia. Eta ez gehiago, ez gitxiago.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Murillo Corzo. En el turno de réplicas, señora De Madariaga Martín, tiene usted la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, eskerrik asko azalpenakaitik, Murillo jauna. Eta uste dot hausnarketa partekatu hori egin behar zala, eta beharrezkoa zala hori funtzionetan hasi eiten eta, hain zuzen be, 126/2019 Dekretua aldatzen amaitu ahal izateko be, ezta?, bertan arautzen dira-eta egoitza-zentroetako ratioen kontu horreek guztiak.

Baina atzo zure erantzunetako batek kezkatu egin ninduan. Zera dinozu: “ez gara bildur araudia betearazoteko”, ezta? Arabere gehiago, atzo bertan iragarri zeuskun egoitza horreetako bat aldi baterako itxiko dala. Eta, zeozelan, atzo jakinarazo geuntsula uste dot, baina ez dot uste..., hau da, zure erantzuna zelakoa izan dan ikusita, hori be sartu ez dalakoan nago.

Guk neurria txalotu egiten dogu, baina gure ustez ez da nahikoa. Eta esango deusut zergaitik. Izan be, egoitza bati buruz ari gara, kasu honetan, eta bertako kudeatzaileak barriro hasiko dira, eta, gainera, antza danez, epe labur baten beste egoitza bat eregiteko lizentzia emongo jakon kudeaketa-talde bateko kide izango dira. Hau da, gitxirako balioko dau daukagun legea apliketeak, gero legea beteten ez daben personak egoitza-zerbitzuen kudeaketaren buru izaten jarraitzen badabe; izan be, zerbitzu horreetan edadeko persona askok une batzuetan euren eskubideak defendiduteko gaiztasun handiak dabez, euren familien ahotik ez bada. Halanda ze, nik be zera gura dot, dinozunean “tira, bai, dekretua berrikusi egingo dogu”. Ados, baina behin eta barriro gertatzen diran ez-

beteteen aurrean, ezin da gertatu gure musturren aurrean topetea persona kudeatzaile bera beste egoitza baten buru, edadeko persona askoren agindupean.

Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, De Madariaga Martín andrea. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Murillo Corzo, tiene usted la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Sí, lo recibí.

Zuon ekarpenak eta apunteak aintzat hartu eta entzun nebazan. Jakina, erantzun be egin neutsuen Gizarte Zerbitzuetako araudia aplikau daiten ikuskapena daukadala. Eta beste eskumen-arlo bateko arau-urratzeren bat egon leitekela igarten, aurreikusten edo barruntetan badot ez eizu zalantzarik euki. Daborduko horrelan egin dot, bai Leireko Andre Mariagaz eta bai Loiolagaz be, eta jakinarazo deutset beste arlo baten legezko ekintzak hartu leikiezanei arauak ez betetearen edozein zantzuk izan behar dauzan ondorioak izan daizan, dala lan-arloan, dala arlo penalean, dala egoitzetan bizi leitekezan personeren eskubide zibilei eragitearen arloan.

Horixe da egin doguna. Horixe egiten jarraituko dogu. Era berean, uste dot horretan ari garan guztiok zuzen jokatu behar dogula, daukaguzan gaitasunak daukaguzalako, nahi-ta jakinarazo geinken eta beste esparru batzukaz lankidetzan jardun. Fiskaltzeaz ari naz, Lan Arloaz, beste esparru batzuez ari naz, eta horreei helduarazo behar deutsegu euren betebeharra egin ahal izan dagien, guk geuk geurea egiten jarraitu daigun. Gure zereginetik alde bat ikusten dogu, eta lan horreek jakinarazo eta partekatu egin behar doguz.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Murillo Corzo.

El punto décimo del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

10.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2022/0000292](#))

Autor: Ilardía Olangua, Beatriz (EHB)

Asunto: El efecto que el ítem de BALORA denominado “instrumentalización en el conflicto entre progenitores” ha tenido en las situaciones

10.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2022/0000292SE](#))

Egilea: Ilardía Olangua, Beatriz (EHB)

Gaia: “Instrumentalizazioa gurasoen arteko gatazketan” izeneko BALORaren itemak Haur Zerbitzuak identifikatutako babesgabetasun

de desprotección identificadas por el Servicio Infantil.

Documento

[\(R.E.11/E/2022/0000292\)](#)

Expediente: [\(11/B/25/0003175\)](#)

Principal:

egoeretan izan duen eragina

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2022/0000292SE\)](#)

Espedientea: [\(11/B/25/0003175\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Ilardia Olangua, tiene usted la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Junteros/as...

Hace dos años aprobamos por unanimidad una enmienda transaccional sobre las medidas para evitar el uso del Síndrome de Alienación Parental por parte del Servicio de Infancia. En su segundo punto se instaba al Departamento de Acción Social a que analice, en el plazo de 6 meses, el efecto que el ítem de la herramienta BALORA denominado “instrumentalización en el conflicto entre progenitores” haya podido tener en las situaciones de desprotección identificadas por el Servicio Infantil.

Hace un año preguntamos en la Comisión y se nos respondió que, como consecuencia de la falta de informatización de los datos y de la pandemia no se había realizado dicho análisis. Hoy volvemos a preguntar al señor Diputado Murillo: ¿cuál ha sido la conclusión del análisis del efecto que el ítem “instrumentalización en conflictos entre progenitores” ha tenido en las resoluciones que hayan establecido la desprotección o riesgo de desprotección?

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Ilardia Olangua. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Murillo Corzo, tiene usted la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Sí, señora Presidenta.

Euskal Herria Bildu taldeko bozeroaleak, Ilardia andreak, 2020ko urtarrilaren 22an onartutako mozinoaren puntuetako bati buruz galdetu dau, bost puntuetako bati buruz.

Pregunta por el cumplimiento del segundo punto de aquella moción en aquella pregunta, y es cierto que el 31 de marzo yo respondí al respecto en la comisión. Y allí se dice, textualmente, y así se recoge también en acta, que para extraer los ítems de BALORA hay que examinar los expedientes uno por uno, y que no lo preveíamos, y leo textualmente: “no se prevé finalizar hasta que el trabajo presencial se normalice”. Porque había que analizar los expedientes físicos uno por uno.

Por lo tanto, en septiembre dimos cuenta aquí, como lo hacemos todos los años, el Gobierno Foral dio cuenta del nivel de cumplimiento de las resoluciones de estas Juntas Generales. Y también indicamos entonces, y se manifestaba que todos los puntos se habían cumplido, excepto uno.

Zera esan dot, urriaren 6an, Batzar Nagusietako ebazpenen betete-mailari buruzko txostenaren kontu emon genduala, hasitako lanak. Egun hori, urriak 6, aurrez aurreko ekintzak, aurrez aurreko lanak barriro hasi ziranetik seigarren eguna zan. Eten egin zan Covid-aren eraginez abiarazotako telelana Bizkaiko Foru Aldundian.

Aldi berean, baina Batzar Nagusi honeek inoena eta Batzar Nagusi honeek agintzen euskuena betez, guraso-figuren arteko gatazketan eta umearentzat edo nerabearentzat esanguratsuak diran guraso-figuren eta beste senide batzuen arteko gatazketan instrumentalizazio-eskalearen edukina eta aplikazioa aztertzeke eta berrikusteko Bardintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak hasi dauen prozesuan parte hartu dogu, izan be, BALORA tresnan ezarrita dagoana. Prozesu horretan Eusko Jaurlaritzea da buru, berari jagoko-eta, bere kasuan, BALORA tresnea aldatzea, eta prozesu horretan parte hartu dogu. Eta Batzar Nagusi honeen ebazpenean be aitaturakoaren arabera, eta 2021eko garagarriletik abendura bitarteko espedienteen azterketatik ondorioztatu ondoren, bialdu egin doguz umeen eta nerabeen guraso-figuren arteko gatazketan eta guraso-figuren eta beste senide batzuen arteko gatazketan instrumentalizazio-eskalan larritasun ertaina, handia edo oso handia daben kasuak, BALORA tresnearen bizikidetzataldeari jagokozanak.

Halanda ze, laburbilduz. Urriaren 6an hasi ginala esan geuntsuen, Haur Zerbitzuko talde guztia barriro hasten zalako aurrez aurreko jardunagaz. Lehenengo lana Eusko Jaurlaritzea egiten ari dan hausnarketan parte hartzea izan da, berari jagoko-eta BALORA tresnea aldatzea, halan bajagoko, eta 2021eko garagarriletik abendura bitarteko azterketearen emoitza helduarazo deusaguz. Eta lan hori datozan hilebeteetan amaitzea espero dogu, Eusko Jaurlaritzearen antzean, geu be Euskal Herriko Unibersidadeagaz eta Aldundiko Haur Zerbitzuko profesionalakaz batera egiten ari garana.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Murillo Corzo. En el turno de réplicas, señora Ilardia Olangua, tiene usted la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Tira, garagarriletik abendura bitarteko espediente horreen emoitzearen azterketea daborduko bialdu jakola Eusko Jaurlaritzeari ulertu ei deusut.

Tira, hurrengo batzordeetan eskatuko deusuguz.

Nire ustez..., ez dot uste gai honetan pazientzia faltea egotziko jakunik. 25 hilebete igaro dira Batzar honeek aho batez adostu ebenetik Gurasoen Alienazio Sindromea ez erabiltea...; uste dot egokiagoa dala Alienazio Marentalaren Sindromea esatea Haur Zerbitzuan edadebakoan edo babesbakotasun-arriskuaren agindua errazoitzeke.

25 hilebete igaro dira 6 hilebetetan egingo zala adostu zanean. Pazientzia eta ulertze osoa izan dogu, kontuan hartuta pandemia-egoerea. Ezin da beste era baten izan, baina ekina eta exijentzia be dana, gai mingorra dalako eta ezin dogulako atzerapen gehiago onartu, Murillo jauna. Eta Ganbera honetako danok horregaz bat gatozala uste dot. Izan be, hori guztia..., egia da, jakinarazo dozu Eusko Jaurlaritzeari alkarlanean ari zariela BALORA tresnearen balorazio edo hausnarketa barri bat egiteke, eta horrek poztu egiten nau, hemen onartu zan ekimena instrumentalizazioaren item hori guztia, BALORA tresna hori guztia goitik behera berrikusteko hasierea baino ez zalako, eta ezin dogu onartu edadebakoan aurkako indarkeriarik, edadebakoan aurkako sexu-abusurik, ezin deusagu zigorbakotasun horri lagundu, eta, zalantza barik, tresna horregaz horretara

laguntzen ari ginala probau da.

Horregaz guztiagaz, Murillo jauna, pozten naz lan horren zati bat, azterketa horren zati bat eginda dagoalako daborduko. Datozan egunetan eskatuko deusugu, eta animau gura zaitut azterketa horretan jarraitu daizun, eta zenbat eta lehenago, hobeto.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Ilardia Olangua. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Murillo Corzo, tiene usted la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Ilardia andrea. Foru Gobernu honek dinoana egiten dau eta egiten dauena dino.

Eta Haur Zerbitzuko profesionalak aurrez aurreko lanean hasi ziranetik aztertzeko konpromisoa hartu dogu, eta urriaren 6an prozesuan gengozala aitatu genduan, eta prozesuan gengoan.

Eta esan deusut, eta ezpabere orain argituko dot, 2021eko garagarrietik abendura bitarteko espedienteak aztertu doguzala, Eusko Jaurlaritzeak egin behar dauen lanari lehen ekarpena egiteko, bera da-eta BALORA tresnea aldatzeko eskumena daukana.

Tresnearen berrikustea eurek egin behar dabe, hasieran eurek emon, diseinatu eta argitaratu eben-eta Euskal Herriko Agintaritzearen Aldizkarian. Eta, behar izan ezker, emon gura deusaguzan ebidentziak kontuan hartuta eta Batzar Nagusietako ebazpenak informazino jakin bat bialtzeko inoelako eta, gainera, eurek eskatu deuskuelako, ba bialdu egin dogu. Seihileko batetik harago joateko azterlana egiten ari gara, eta babesbakotasuna dagoanean informazino edo instrumentalizazino-adierazlean ertaina, larria edo sano larria dala agertzen dan kasuak Eusko Jaurlaritzara bialtzen ari gara. Azterketa hori egiten jarraituko dogu, esan deusuedan lez, ekitaldiko lehenengo seihileko honetan.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Murillo Corzo.

Y el undécimo y último punto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

11.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2022/0000312](#))

11.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoa ([11/E/2022/0000312SE](#))

Autor: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

Asunto: Proyecto Bizkaibizi.

Documento

[\(R.E.11/E/2022/0000312\)](#)

Expediente: [\(11/B/25/0003177\)](#)

Principal:

Egilea: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)

Gaia: Bizkaibizi proiektua

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2022/0000312SE\)](#)

Espedientea: [\(11/B/25/0003177\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

El pasado 8 de febrero se anunció en los medios de comunicación de Bizkaia un acuerdo entre la Dirección de Movilidad Sostenible de la Diputación y los ayuntamientos de Barakaldo, Berango, Bilbao, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi y Sestao.

Una vez más, el Departamento de Transportes apostó por informar antes a los medios de comunicación que a esta Cámara.

En dicha información se recoge el número de bicicletas por municipio y los puestos de recogida y entrega, y se recogían los costes que tendría para la Diputación y los ayuntamientos. Y se indicaba que el acuerdo tendría una duración de 4 años.

Pero existen muchas dudas e interrogantes en relación a ese acuerdo, y esperamos que el diputado los aclare hoy, sobre todo aquellos que surgen desde el punto de vista de las personas usuarias del servicio: tarifas, horarios, modo de pago, las condiciones de uso...

Siendo esto así, nuestra pregunta directa es: ¿cuáles serán las principales características del servicio Bizkaibizi desde el punto de vista de las personas usuarias?

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. En el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Gómez Viar, tiene usted la palabra.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Mahaiburu andrea, ahaldunak, buenos días a todos/as.

Tira. Gaur emon ahal deusudan informazinoa, Méndez jauna, berresten ari garan hitzarmenean jasoten dana da, alde batetik, udalak, eta bestetik, Aldundia; eta, hain zuzen be, atzo bertan onartu zan Gobernu Kontseiluan.

Bizikletea errentan hartzeko zerbitzu publiko hori erabili leikien personentzat interesgarriak diran ezaugarri batzuk aurreratu ahal deusudaz. Lehen fase honetako zerbitzua, zeuk esan dozun lez, eta lehengoan komunikabide baten argitaratuta

egoana, Barakaldon, Berangon, Bilbon, Erandion, Getxon, Leioan, Portugaleten, Santurtzin eta Sestaon zabalduko da eta bertan erabili ahal izango da. Altea emoterakoan eta datu personalak, etab. emon ondoren 16 urtetik gorako edozein lagun izan leiteke erabiltzaile.

Aurreikusitako ordutegian, zerbitzuguneetako edozeinetan hasi ahal izango da erabilten, eta beste edozeinetan amaitu. Zerbitzuaren hasiereak ordutegi zabala eskainiko dau asteko 7 egunetan. Tarifen politikea azterketa-fasean dago, eta horixe da galdetzen deustazuna. Edozelan be, erabilerea erraztuko dauen politikea jarraituko da. Geltokien behin betiko kokapena be udal bakoitzagaz aztertzeke eta adosteko fasean dago.

Zerbitzuak Bizkaibizi eta Bilbaobiziren arteko alkarreragingarritasuna erraztuko dau. Esan deusudan lez, hitzarmen hori laster sinatuko dabe inplikauta dagozan alderdi guztiek. Uste dot udal batzuek bihar, egunez, sinatuko dabela. Eta garrantzitsuena zera da, hurrengo urratsa Bizkaibizi zerbitzua esleitzeko lehiaketearen plegu teknikoak eta administratiboak onartzea izango dala, eta zerbitzu horrek kontuan hartu beharreko gitxieneke baldintzak jasoko dira bertan.

Hau da, gaur ez deusut ia ezertarako balio, dakidanaren barri emoten ari natxatzulako, hau da, denpora errealean eta gaur arte dakidana.

Gainera, gogoratu behar deusut emon dan informazino hori udalen batetik pasau dan hitzarmenen batetik etorriko zala erexten deusadala. Edozelan be, ez Garraio Sailak ez Aldundiak ez dabe inongo prentsaurrekorik emon eta ez dabe ezer esan gai horri buruz.

Hori gertatzen danean, ba, hona etorriko naz, betiko lez, eta eskatu deustazunaren barri emongo deusut, bizkaitar guztientzat interesgarria dala uste dot-eta: tarifak, geltokiak..., azken finean, galdetu deustazuna.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Gómez Viar. En el turno de réplicas, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo, señora Presidenta.

Muchas gracias también al señor diputado Gómez Viar por los datos facilitados, a pesar de que han sido escasos. Tal y como le he planteado la pregunta, nuestra intención era que nos explicara las condiciones de uso desde el punto de vista de las personas usuarias de la bicicleta. Y no ha explicado nada al respecto.

Usted ha explicado las iniciativas que vienen recogidas en el convenio. Y eso ya lo sabíamos. También tenemos ese convenio. Y le adelanto que, tal y como usted ha indicado, en el Pleno de mañana defenderemos, apoyaremos la firma del convenio, porque creemos que es un buen proyecto, porque consideramos que en Bizkaia debe existir un servicio público de bicicleta. Porque creemos en el proyecto. Y por ello lo apoyaremos, pero desde EH Bildu opinamos que ha habido unas notables faltas de información y participación. Y eso se puede subsanar.

Eta gure galderearen justifikazinoan argi eta garbi adierazo geuntsun zelako informazinoa eskatzen geuntsun. Zeintzuk izango dira erabilera-tarifak? Azterketa-

fasean dagozala esan deuskuzu. Orain zera galdetzen deusut: eremurik egongo al da? Zelan ordainduko da? Eskuko telefonoagaz? Banku-txartelagaz? Barik-egaz? Zeintzuk izango dira erabilera-ordutegiak? 7 egun astean. 24/7 jarriko al dozu? Edo Bizkaibusek edo metroak euki leikien ordutegiaren antzekoa jarriko dozu? Udalerrri horreetan erroldatutako personeren eta gainerako bizkaitarren erabilera-baldintzetan alderik egongo al da? Kontuan hartu al da garraiobideen arteko intermodalidadea? Marra fin bat itxi dozu, baina ez dozu esan jasoteko eta entregetako tokiak non kokatuko diran, metro-geltokien ondoan izango ete dan, tren-geltokien ondoan, Bizkaibusen ondoan... Hau da, herri horreetan intermodalidadea errazteko garraio-nodo txikiak sortuko al dira? Planteau da egungo araudiak, barbarako, kaskoa erabiltea eskatzen dauela uriarteko ibilbideetan? Bizkaibizik zerbitzu hori eskainiko al dau? Babes-elementu hori emongo al dau?

Baina harritzen nauena da zerbitzuaren eskariak ezer ez esatea. Ez jat buruan sartzen zuk Bizkaibuseko garraio publikoko zerbitzu bat martxan jartea merkadua-azterketa bat egin barik. Eta emoten deust bizikleteagaz hori egiten ari zariela, agirikoa dala iges egin dozuena. Ez dakizue zer kobrauko dozuen, baina badakizue udalek zer ordainduko daben. Hau da, edozein garraio-zerbitzu abiarazoteko, eskari-azterketa bat egin behar da, eta hainbat datu eskatu, gero ondo dimentsionau ahal izateko eta erabilera egokia euki dagian.

Ez deuskuzu ezer esan. Ez dakigu eskaera-azterketarik dagoan ala ez. Ez dakigu zelan planteau dozun, ezta bizikletea darabilen persona eta kolektiboen eretxiak kontuan hartu diran be... Ez dakit. Uste dot zalantza ugari dagozala. Gero minutu bat daukazu eta erantzun ahal izango deuskuzu.

Guk, zer gura dogu? Aldundiak bizikletearen zerbitzu publikoari garraio publikoaren estatusa emon degiola gura dogu, lehen mailako garraio publikoaren zerbitzua, eta ez daitela bigarren mailako garraiotzat hartu. Hau da, ez dogu gura Bizkaibizi Bizkaibusen ahizta txikia izan daitela. Maila berean egon daitela gura dogu. Horregaitik, eta horregaz batera, bizikleta publikoaren zerbitzua Bizkaiko garraio publikoaren eskaintzan sartzeko eskatzen deusugu, integrau daitela eta uriarteko ibilbideen planifikatzaile multimodala garatu daizula, bizikletea beste garraiobide publiko bat balitz lez.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Y en el turno de réplicas, el representante de la Diputación, señor Gómez Viar, tiene usted la palabra.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Méndez jauna, tira, barriro esango deusut. Ea, ostera be azalduko deusut.

Hitzarmena hasierako fasean dago eta ikusi egin beharko dogu horreek alderdi guztiak zelan jasoko diran. Lehen mailako garraiobidea izango da, jakina. Uste dogu Barik-egaz ordaindu ahal izango dala, hoba ez. Baina barriro dinotsut, hau da, udalakaz hitzarmena sinatu da. Arabere gehiago, batzukaz harenbaten bihar, eguenez, sinatuko da, eta zu ordu-tartea zein izango dan eskatzen ari zara. Bada, uste dot plegu batzuk egin behar dirala eta lizitau. Hau da, ahalik eta ordu-tarterik zabalena izan daiten saiatuko gara, baina ezin deustazu eskatu datu batzuk emoteko, proiektu hori hondinokarren ez dogunean lizitau, engainetea gura ez badozu behintzat. Eta, jakina, azterketa bat egin da zer eskari dagoan ikusteko; izan be, hori ez litzateke diputaduen gauza bat izango, teknikarien gauzea baino, eta, jakina, zerbitzu bat inplementetan saiatzen garanean

eskariaren azterketea egiten da. Hori danok dakigu, baina zera dinotsut: ez badozu gura gaur hemen, Tribunan guzurrik esatea, eta ez dot uste horrelan izan behar danik, ezin deusudaz datuak emon, proiektu hori lizitau egin behar dalako, eta lizitau egingo dogu. Zer ordutegi eukiko dauen badinostazu, ba X orduko ordutegi bat lizitauko dogu, eta enpresaren batek esan ahal deusku zerbitzu hori 24 orduz emongo dauela, baina orain eta une honetan ezin deusut hori esan. Eta ez izan zalantzarik lehenengo mailakoa izan daiten saiatuko garana, beste edozein garraiobide lakoa.

Baina tira, Bizkaibusen anaia txikia edo antzekoa dala esatea, ez. Kutsatzen ez dauen eta inplementetan saiatzen garan Bizkaibusen zatia da. Ez dauena ezer kutsatuko.

Baina ez, ezin deusut besterik esan. Informazino gehiago euki eta berehala gustura jakinarazoko deusut.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Gómez Viar.

Y una vez concluido el Orden del Día, finaliza también esta Sesión Plenaria. Que tengan todos/as un buen día.

Batzarra 12:50ean amaitu da.

Se levanta la sesión a las 12:50 horas.